

ejj-pnv.eus



EAJ-PNVREN UDAL ETA BATZAR NAGUSIETARAKO 2023-2027 HAUTESKUNDEETARAKO PROGRAMA

Aurrera, batera!
EUSKADI

Mira al futuro



AURKIBIDEA

2023-2027: LAU URTE ILUSIONAGARRI ETA ERABAKIGARRI EUSKADIREN ETA PLANETAREN ETORKIZUNERAKO.....	3
EAJ-PNVK UDALERRIEI ETA FORU-ERAKUNDEEI BURUZ DUEN IKUSPEGIA	7
TOKIKO EREMUTIK EUSKADIKO GIZA GARAPEN JASANGARRIAN SAKONTZEKO KONPROMISOAK	11
1.- Herri, hiri eta lurralde LEHIAKORRAK ETA AUKERA-SORTZAILEAK	13
2.- Herri, hiri eta lurralde JASANGARRIAK ETA OSASUNGARRIAK	21
3.- Herri, hiri eta lurralde KOHESIONATUAK ETA SOLIDARIOAK	27
4.- EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNA DAGOEN herri, hiri eta lurraldeak.....	35
5.- AISIALDIA ETA KULTURAREN ERAGILE DIREN herri, hiri eta lurraldeak.....	37
6.- Herri, hiri eta lurralde SEGURUAK	41
7.- MODU IREKIAN ETA ERAGINKORTASUNEZ KUDEATUTAKO herri, hiri eta lurraldeak	43
8.- ELKARREKIN SAREAN LAN EGITEN DUTEN herri, hiri eta lurraldeak	51
GURE HAUTAGAIAK. GAITASUNA, ESPERIENTZIA ETA BALIOAK	55

2023-2027: LAU URTE ILUSIONAGARRI ETA ERABAKIGARRI EUSKADIREN ETA PLANETAREN ETORKIZUNERAKO

2023-2027: Lau urte ilusionagarri eta erabakigarri Euskadiren eta planetaren etorkizunerako

Mende berriaren lehen hamarkadan planeta astindu zuen eta globalizatutako neoliberalismoaren josturak agerian utzi zituen finantza-krisialditik ikasi izana espero genuen; gure herrialde txiki honen egiturak deslokalizazioaren erasoei eutsi zien, hau da, burbuila ekonomikoaren hausturei eta atzeraldiari eutsi zien eta uste genuen berreskuratuta geundela eta hazkunde-garai berri bati ekingo geniola baina, orduan, pandemia hasi zen. Gure erakunde-egiturak aurreko krisi horren efektu suntsitzaileak gainditu egin zituen EAJ-PNVk zuzendutako erakunde-kudeaketa ekonomiko zorrotz eta kaudimendunari esker eta, bi urte baino gehiagotan, egitura horrek ez-ohiko egoera berri bati aurre egiteko erronka onartu behar izan zuen, herritarrak babesteko mekanismoak doitu.

Horrela, osasuna bermatzeko borroka hasi zen, sektorerik babesgabeenak defendatzeko eta jardueraren eta enpleguaren alde egiteko, gaixotasunak eragindako paralisaren aurrean. Estres- eta proba-garaia izan da gure zerbitzu publikoentzat. Salbuespenezko garaia. Ezezagunaren aurrean erantzuteko eta erronka gainditzeko garaia. Eta lortu dugu garai horretatik ateratzea.

Baina, gaixotasuna menderatu bezain laster, beste lurrikara geopolitiko bat heldu zen: gerra Europaren mugetan. Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz, ezegonkortasunak berriro ere baldintzatu egin du gure bizitza. Hazkunde ekonomikoa lortzen ari ginenean eta enplegua pandemiaren aurreko mailetan kokatuta zegoenean, besteak beste, berriro ere astindu gaituzte gerraren ondoriozko energia-krisiak, industriarentzako hornidurarik ezak eta bizitzaren eremu guztietako prezioen igoerak. Eta, prezioen ohiz kanpoko igoeraren une honetan, erakunde publikoek berriz ere egin dute ahalegina bizitzaren garestitasunak ahalik eta eraginik txikiena edukitzeko pertsonengan, familiengan eta produkzio-sektoreengan.

Euskadiko erakunde-egiturak behin eta berriz erantzun behar izan du bidean agertu diren erronka eta oztopoen aurrean. Eta, batzuetan, inguruabarrak oso gogorrak izan diren arren, gure erakundeek eta, zehazki, gure udalek eta aldundiek burututako euspen-jarduera funtsezkoa izan da, euskal gizarteak bizi-kalitateko eta ongizateko maila altua mantentzen jarraitzeko. Laburbilduz, esan dezakegu autogobernuari esker jarraitu ahal izan dugula aurrera.

Urte hauetako esperientzia dela-eta, herritarren itxaropenak nabarmen aldatu egin dira. Pandemiak eragindako bakardadea eta aurkako ingurune batek eragindako segurtasun pertsonalik edo familia-segurtasunik ezaren sententzia dira-eta, nabarmen areagotu egin da pertsonen administrazioekiko duten exijentzia-maila. Hurbileneko erakunde-sistema demokratikoarengandik, hau da, gure kasuan, udalengandik eta foru aldundiengandik eskatzen diren oinarriko elementuak exijentzia, eraginkortasuna eta gardentasuna dira.

EAJ-PNVren ustez, erkidegoaren eremutik eskain daitezke pertsonen bizikidetzaz arazoentzako konponbiderik onenak. Herrialdea tokiko eta foruko eremutik, hau da, behetik gora eraikitzea da egunero giza garapen jasangarria bultzatzen duten udalerrit eta lurraldeen sarea indartzeko motibatutako gaituen filosofia. Kontua da “politikaren gauzengandik” ihes egitea eta “gauzen politikan” eragitea eta pertsonen premiak erantzun errealekin kudeatzea.

EAJ-PNVk zuzendutako kudeaketa publikoaren bereizgarrietako bat da gaitasuna izan duela uneoro interpretatzeko herritarrek aldarrikatutako premiak. Beti izan gara entzuteko gai. Orain ere badakigu entzuten, politika egiteko forma zehatz batek helarazten duen hondo-zaratak entzutea zailtzen duen arren. Politika hori iheskorra da, ibilbide laburra dauka eta ez du ongi komuna bilatzen, baizik eta etsaiaren suntsipena eta porrota.

Egun, Euskadin, EAJ-PNVk entzute aktiboko prozedura handizalea amaitu du. Eragile eta pertsona ugariaren informazioa jaso dugu, herrialde honen etorkizunerako proiektu komun bat eraikitzeke prest agertu direnak. Horiek emandako informazio guztia kontuan hartu dugu, Euskadik eskatzen dizkigun premiei erantzuteko. Eraginkortasunez, erabakiz eta gardentasunez.

Udal eta Batzar Nagusietarako 2023-2027 Hauteskundeetarako Esparru-programa hau entzute aktiboko prozesuari ematen diogun erantzuna da eta, horren bidez, Euskadiko giza garapen jasangarrian sakontzeko etapa berri batekiko konpromisoa adierazi nahi dugu, foru eta tokiko erakunde-bultzadatik, hain zuzen.

Azkenengo hamarkadetan, Euskadi gai izan da ongizate-eredu aurreratua eraikitzeke, Giza Garapen Jasangarriaren Indizearen munduko abangoardian kokatzea ahalbidetu diguna. Baina jakin behar dugu ongizatea egunero eraikitzen eta irabazten dela.

Aurreratzen jarraitu behar dugu. Europan XX. mendearen erdialdean jaiotako ongizate-eredua, dagozkion birformulazioekin, sakonki eguneratu behar da, gizarte-premia eta errealitate berriei erantzute aldera. Gure herrialdean ere bai.

Erronka handiak gainditu behar ditugu maila desberdinetan: gizartea, ingurumena eta ekonomia. Zalantzarik gabe, erronkarik garrantzitsuena larrialdi klimatiko globalari aurre egitekoa da. Izan ere, bizitzeko planeta osasuntsurik gabe, gainerako kontuak ezinezkoak dira. Garaiz gaude egoera hori leheneratzeko, baina gure trantsizio energetiko-ekologikoaren erritmoa azkartu behar dugu. Eta, gure herrietan eta hirietan egin ez ezik, estrategia eta lankidetzak globaleko ikuspegi batekin ere egin behar dugu.

Erronka horrez gain, baditugu beste batzuk, aurrekoa bezain garrantzitsuak direnak: Erronka demografikoa, trantsizio teknologiko-digitala, migrazio-joera berriak... Erronka horiek, gainera, konektatuta daude.

2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuak tresna bikaina dira erronka horiek identifikatzeko eta konponbideak bideratzeko. Mundu-mailako konponbideak eta tokiko konponbideak. Mundu-mailako eragina sortzen duten tokiko eragineko ekintzak.

Hurrengo 4 urteak erabakigarriak dira Euskadirentzat eta planetarentzat. Hurrengo 4 urteek gu probatzen jarraituko dute. Baina, aldi berean, 4 urte horiek abagune handia dira, herrialde hobea eraikitzen jarraitzeko, planeta hobe baterako.

Zalantzarik gabe, auzolanaren unea da. Unea da denok har dezagun konpromisoa pertsonak erdigunean jartzen dituen eta helburu handitzat jasangarritasuna duen garapen-ereduarekin. Jasangarritasuna gizartearen, ingurumenaren eta ongizate ekonomikoaren oreka gisa. Jasangarritasuna orainaldiaren eta etorkizunaren arteko oreka gisa.

EAJ-PNVn, auzolanaren lidergoa mantendu nahi dugu. Pertsona guztiak entzunez. Gure herriak eta hiriak dinamizatuz. Gure identitatea babestuz eta garatuz. Honaino ekarri gaituzten balioak sustatuz, baita balio berriak sustatuz ere, bizitzeko herrialderik onena eraikitzen jarraitzeko.

**EAJ-PNVK UDALERRIEI
ETA FORU-ERAKUNDEEI BURUZ DUEN IKUSPEGIA**

EAJ-PNVk udalerrii eta foru erakundeei buruz duen ikuspegia

EAJ-PNVrentzat, tokiko eremua pertsonen arazoak detektatzeko eta konpontzeko espazio egokia da, hurbiltasun-ingurunean ase daitezkeelako herritarren premiak, zehazki, modu ordenatu, arin eta eraginkor batean. Eguneroko arreta hurbiletik.

Udalerriak, eskualdeak eta lurralde historikoak erkidegoa dira. Pertsonen arteko bizikidetzeta-lekuak dira eta, bertan, konponbiderik onenak eskain daitezke, askotarikoak diren eta, aldi berean, egoera zehatzetara egokitzen diren erantzunekin. Sinergia guztiak baliatzen dituzten erantzun koordinatuekin.

EAJ-PNVn, uste dugu udalak funtsezkoak direla administrazio desberdinek eskainitako zerbitzuen egituran. Udalak diagnostiko egoki baterako eta orientazio zuzen baterako sarrera dira, pertsonaren erabateko garapena behar bezala lortzeko beharrezkoa den segimendua ahaztu gabe. Halaber, EAJ-PNVren ustez, aldundiak hurbiltasunaren balioa gure lurralde historikoetan eragin globala izateko gaitasunarekin uztartzen duten politikak artikulatzeko gaitasuna duten erakundeak dira.

Gure aburuz, tokiko eremua eragileen eta erakundeen hausnarketa eta lankidetzarako eremua da; eragileek eta erakundeek elkarrekin eta koordinatuta lan egiten dute herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Uste dugu udalek eta foru erakundeek pertsonetan zentratutako politika publiko aurreratuak inspiratzen dituztela. Gure aburuz, arazoentzako konponbideak erkidegotik eraikitzen dira, egoera zehatzetara egokitutako erantzunekin.

Bertako udalerriak eta lurralde historikoak espazio biziak eta dinamikoak dira eta esperientzia eta bizipen ugari dituzte, ikuspegi integral batetik, herritar guztiek aurrera egin dezaten lortzen lagunduko duten proiektuak eta neurriak garatzea ahalbidetuko digutenak. Espazio horietan, emakumezkoen eta gizonezkoen esperientziatik abiatuta, tresnarik onenak diseinatzen jakin beharko dugu, kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko eta, horrela, baldintzarik onenak ziurtatzeko, gizarte jasangarriago, bidezkoago eta orekatuago baterako.

Gure erroka gero eta askotarikoagoak diren premia emergente berriei erantzutea da. Ahalegin guztiak bideratu behar ditugu, batera eta modu harmonizatuan, gizarteratzerantz eta giza garapen jasangarriantz aurrera egitera.

Orain eta etorkizunean, hauxe izan behar da gure konpromisoa eta lehentasuna: babestea, laguntzea eta ahalduntzea, inor atzean ez uzteko. Horretarako, berebizikoa da betiere kontuan hartzea gure politika eta zerbitzuen hartzailak diren pertsonen parte-hartzea, gizarte osoaren inplikaziotik. Eta gure identitatearen elementuak garatuz. Globalizatutako mundu honetan, berezko identitatea duten eta kide izatearen sentimendua partekatzen duten komunitateek sortzen dituzte solidaritateko eta gizarte-kohesioa ingurunerik onenak; komunitate horiek dira ekonomiaren zein gizartearen eremuetan garapen-aukerarik onenak sortzen dituztenak.

Identitatea eta komunitatea, azken finean, balioak partekatzen dituzten pertsonen multzoa dira. Kasu honetan, balio horietako bat euskara da, hizkuntza integratzaile gisa. Gainera, identitatea honako elementuetan oinarritutako gauzak egiteko eta izateko modu bat da: berdintasuna, errespetua, esfortzua, nekaezintasuna, lankidetzeta eta ondo egindako lanarekiko maitasuna.

Gure identitatea defendatzeko eta gure erkidegoa eraikitzeko, gure sustraiekin lotu behar dugu, berezko kultura zainduz eta, aldi berean, inguruko munduarekiko jarrera irekia mantenduz. Izan ere, tradizioa eta modernitatea ere badira gure bereizgarriak. Gaitasuna dugulako beste errealitate batzuetako esperientziak barneratzeko eta gurera egokitzeko, gurea ere umiltasunez eskaintzen dugun bitartean.

Komunitatea sortzea, gizarte-kohesioan lan egitea, tradizioaren eta modernitatearen binomioa eta munduari irekitako ikuskera, ikuspegi ekonomikotik ez ezik, gizartearen eta prestakuntzaren ikuspegitik ere bai, EAJ-PNVk politika publikoetan islatzen dituen kontzeptuak eta balioak dira, horiek tokiko eta foruko gobernuetatik aplikatuz udalerrietan eta lurralde historikoetan.

Haxe da EAJ-PNVk egiten duen eta egiten jarraitu nahi duen toki eta foru politikaren islarik onena.

EAJ-PNV bokazio municipalista argia duen alderdia da eta esperientzia eta ezarpen-maila handiak ditu tokiko eremuan. EAJ-PNVtik, udalerrietatik eta lurraldeetatik eraikitako herrialde-proiektu baten alde egiten dugu. EAJ-PNVk kudeatutako udalek eta aldundiek erakutsi dute eraginkortasunez kudeatzen dutela hurbileko eremua, herritarrekiko bizikidetzeta-mailatik aktibatuz gainerako erakundeetarako goranzko eskari-kate bat, herritarren premietara egokitutako erantzun errealak eskaintzeko gaitasunarekin. Hori guztia erakunde-testuinguru zehatz batean: 5 udalerrietatik, lauk 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte eta funtsezkoa da sareko lan-sistema bat ezartzea udalerriri eta lurralde guztien artean, zerbitzuen emakida eta herritarrei eskainitako arreta optimizatze aldera.

Herritarrei emandako zerbitzua hobetzea da municipalismoaren eta foralismoaren funtsa. Gure erronka parte-hartzean eta gardentasunean oinarritutako tokiko zerbitzu publiko aurreratua lortzea izan behar da. Herritarrengandik hurbilago daudenez, udalek eta foru erakundeek bere premiak eta itxaropenak ezagutu behar dituzte eta zerbitzuak horietara egokitu behar dituzte etengabe, parte hartzeko bideak ezarriz eta berrikuntza-gaitasunak garatuz, bai zerbitzuen diseinuan, bai zerbitzu horiek emateko moduan.

Demokrazia hasi zenetik igarotako hamarkadetako tokiko eta foruko gobernuekin, gure udalerriek eta foru lurraldeek garapen aparta bizi izan dute. EAJ-PNVk gobernatutako erakundeek kudeaketa eraginkorra eta jasangarria egin dute.

Munduko giza garapenaren indizerik altuenetako bat daukagu. Gure gizarte-zerbitzuen sistema inguruko aurreratuenetako bat da, baita erreferentziarik handienetako bat ere. Diru-sarrerak bermatzeko errenta bezalako gizareratze-politika aitzindariak garatu ditugu, funtsezkoak izan direnak gure udalerriri eta lurraldeetako gizarte-kohesioa bermatzeko. Ekonomia irekia eta nazioartekotua daukagu. Sistema zientifiko-teknologiko bikaina daukagu eta gure ingurunean bertan eta hemendik kanpo erreferenteak diren eta kalitatezko enplegua sortzen duten enpresen egoitza gara. Horrez gain, xarma turistiko handia daukagu eta, nazioartean, gizarte aurreratu, kohesionatu eta solidario gisa ikusten gaituzte.

Lorpen horietako asko gure foru- eta toki-erakundeek garatutako lanaren emaitza dira eta gure erakundeek egindako lan on horretan sakontzen eta hobetzen jarraitu behar dugu egunero.

TOKIKO EREMUTIK EUSKADIKO GIZA GARAPEN JASANGARRIAN SAKONTZEKO KONPROMISOAK

1. Herri, hiri eta lurralde **LEHIAKORRAK ETA AUKERA-SORTZAILEAK**

Azkenengo hamarkadetan, Euskadik berrasmatzen eta eraldatzen jakin izan du eta, horrez gain, garapen ekonomikoko eredu bat garatu du arrakastaz, gure gizarte-ongizatearen oinarrian dagoen ekonomia irmoa eta lehiakorra sortzea ahalbidetu duena.

Euskadik, 1980ko hamarkadaren hasieratik, autogobernu zabala izan du eta, ekonomiaren eta zergen eremuan, horren elementurik bereizgarriena Kontzertu Ekonomikoa da, baita eremu sozioekonomikoko transferentzia gero eta handiagoak ere, nahiz eta oraindik ez diren erabat burutu. Horri esker, geroztik, edozein herrialderen arrakasta ekonomikorako 3 gakoak lortzeko oinarriak ezarri dira: inbertsiorako eta garapen ekonomikorako ingurune-baldintza egokiak sortzea; bokazio industrial argia duen gizartearen eta enpresaren egitura irmoa ezartzea eta gizartean garapen ekonomikoa bultzatzen duten kultura eta balioak egotea.

EAJ-PNVk bultzatutako Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialeko eredu honek hamarkadetan zehar suertatu diren aldaketetara egokitzen jakin izan du, apurka-apurka handituz bere lehiakortasunaren oinarriak. Ereduak bere indarra erakutsi egin du COVID-19aren pandemia bezalako mugako egoeretan edo Ukrainiaren inbasioaren ondorio ekonomikoen aurrean; hain zuzen, enpresen jarduera egokiari eta erakundeen babes azkarrari eta handizaleari esker, lortu da enpresak eta horiek sortutako enplegua mantentzea.

Baina ezin gara hor geratu, aurreikuspen guztiek adierazten baitute, etorkizunean, aldaketak gero eta gogorragoak eta azkarragoak izango direla eta arriskuan jarri ahalko dituztela lortutako arrakastak.

Prest egoten jarraitu behar dugu eta aurrea hartu behar diegu aldaketei, politika publikoak indartuz, enpresa txiki eta ertainak babesteko, langileen enplegarritasuna sustatzeko, ekintzaileei laguntzeko eta, oro har, herri eta hirietako egitura ekonomiko osoa suspertzeko.

Izan ere, garapen ekonomikoko eta enpresa-lehiakortasuneko ereduaren indarra ongizate-maila mantendu eta indartzeko oinarria da, baita kalitatezko enplegua eta aberastasuna sortzeko ere. Eredu horretatik eratorritako diru-sarrera fiskalei esker, gure politika publikoak mantentzeko. Izan ere, politika publiko horiei esker, Euskadi Europako eskualde liderretako bat da, bere oreka ekonomiko-sozialagatik eta bertako desberdintasun-indizea txikiagoa delako. Jarraitu behar dugu erdiko klase indartsua eta gero eta zabalagoa garatzen, hori izango baita orekatutako ekonomia- eta gizarte-garapenerako oinarria.

Ongizate ekonomikoaren eta kalitatezko enpleguaren eremuan, EAJ-PNVk ohi bezala egiten dio aurre legegintzaldi berri honi: erantzukizunez eta Euskadiko pertsonetikiko eta enpresekiko konpromisoarekin, elkarrekin, aberastasuna eta kalitatezko enpleguak sortzen jarrai dezagun eta euskal gizarte osoaren ongizatea bermatzeko lehiakortasun-politikak garatzen jarraitzeko, inor atzean utzi gabe.

GURE ENPRESA- ETA INDUSTRIA-EGITURA SUSPERTZEA

EAJ-PNVn, uste dugu berebizikoa dela gure ekonomia- eta enpresa-egitura egokitzea eta indartzea, enpresa berriak sortzearen, trakzio-enpresak finkatzearen eta enpresa berriak erakartzearen aldeko ekosistema publikoa eta soziala indartuz. Ildo horretatik, foku berezia jarriko da gure profila mantentzean, hau da, gizarte industrialaren profila mantentzean, Euskadirentzat, sektore industrialaren modernitatearen eta ongizatearen funtsezko eragilea izan delako. Eta etorkizunean ere bai eragile izaten jarraitzea behar dugu.

Ekintzaitzari dagokionez, legegintzaldi berrian, aurrerapauso bat eman nahi dugu. Barneko pulstu ekintzailea berreskuratu behar dugu, baita gure estrategia indartu ere, kanpotik, ekiteko espaziorik onena garelako ikus dezaten.

Udalerrietan, bokazio ekintzaile berriak sustatzeko eta babesteko ekintzen katalogo bat garatu egingo dugu. Izan ere, ekintzailtza bultzatzeko zerbitzu bikainak ditugu, baina ekintzaile gehiago behar ditugu udalerrietan, ekintzailtza baliu soziala aitortuko dutenak eta ekintzailtza lehentasunezko udal politika estrategikoa bihurtuko dutenak.

Horrekin batera, sustatuko dugu ekintzailtza konpromiso sozial handiagoa edukitzea. Baita bere erkidegoarekiko lotura estuagoa edukitzea ere. Balioak eta eragin handiagoa dituen ekintzailtza.

Tokiko eta foruko bultzadatik ere bai, erakunde arteko estrategia baten esparruan, Euskadi ardatz atlantikoko erreferente gisa kokatzeko lan egingo dugu, ekintzaileek bere enpresa-proiektuak egikaritzeko, enpresa txikiak eta ertainak eskalan haz daitezten eta enpresek bere nazioarteko presentzia areagotu dezaten.

Gure sektorerik tradizionalenen lehiakortasuna mantendu behar dugu eta aukera-sektore berrien hasiera biziagotu behar dugu, sektore horien garapenerako ekosistema egokiak sortzea ahalbidetzen duten espazioak eta zerbitzuak indartuz. Ekosistema horiek talentua, finantziarioa eta lankidetzazko bezalako aktiboak bildu eta garatuko dituzte.

EAJ-PNVren ustez, hurrengo urteetan sor daitezkeen beste batzuk baztertu gabe, gure herrialdean, potentzial eta etorkizun handiko 3 eremu ekonomiko daude, enpresak garatzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko: industria adimenduna, energia eta ingurumena eta eremu soziala eta sanitarioa.

Gainera, zeharka, aktiboki sustatu beharko dugu euskal ekosistema digital baten garapena, zehazki, estrategia global baten bidez. Estrategia horrek, besteak beste, hauxe ahalbidetuko du: inbertsio global teknologiko eta industrialerako abaguneak baliatzea, ezagutza aurreratua sortzea eta digitalizazio-prozesuan laguntzen duen tokiko enpresa- eta industria-egitura are indartsuago bat eratzea. Digitalizazioa eredu ekonomiko-enpresarialaren aliatu handia izan behar da.

INDUSTRIA

EAJ-PNVn, badakigu oso garrantzitsua dela industria lehiakorra edukitzea, aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko funtsezko euskarri gisa. Gizarte industrialara gara eta izaten jarraitu nahi dugu. Industria-eredu berria duen gizartea: industria adimenduna eta jasangarria.

EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du euskal industria 4.0 estrategia indartzen jarraitzeko, lehiakortasun industrialaren estadio berri baten lidergoa izateko. Produksio-jarduera tradizionalak teknologikoki aurreratuta dauden industria berri bihurtzearen aldeko apustu bat egingo du, betiere kalitatearen eta balio erantsiaren etengabeko bilaketatik abiatuta. Talentu ikertzaile eta teknikoaren parte-hartzearekin eta ekarpenarekin. Horretarako, programak garatuko dira ikasleak, teknologoak eta manufaktura aurreratuarekin lotutako kudeaketa-sistemetako eta teknologietako profesionalak prestatzeko eta, gainera, atzerititik, maila teknologiko altuko proiektuak erakarriko dira, fabrikazio aurreratuko estrategia osatuko dutenak euskal enpresetan. Halaber, enpresa bideragarriak berregituratzea ahalbidetzen duten finantziario-konponbideak eskainiko ditugu; horiek mantentzen lagunduko dugu eta enpresa-egitura osoaren proiektzioa bultzatuko dugu.

Gobernatzen ditugun udalerriek industria berriaren aldeko apustua garatuko dute, ETE industrialen babesa gehituz udal agendaren lehentasunen artean. Horretarako, enpresak egokitze prozesuetan hartuko dugu parte eta gure ikasleek egitura industrialaren errealitatea ezagutzea erraztuko dugu, hori baita lehenbiziko beharrezko urratsa enpresa horietan lan egin dezaten etorkizunean.

TALENTUA GARATZEA, GORDETZEA, BERRESKURATZEA ETA ERAKARTZEA

Ezagutzaren gizartean bizi garenez, talentua ongizaterako eta garapenerako funtsezko aktiboa da.

EAJ-PNVren ustez, gaur egun, Euskadirentzat, talentua garatu, mantendu, berreskuratu eta erakartzeko premia lehentasun bat da, nazioarteko lehiakortasun-maila altuak mantentzearen alde egiten duen herrialdea delako baina, aldi berean, errealitate demografiko negatibo batean egin behar duelako apustu hori. Talentu oro behar dugu erronka demografikoari erantzuteko eta ongizate-maila mantentzeko.

Gure hezkuntza-sistema aldatu behar da, gaur egun existitzen ez diren baina, etorkizunean, aurreabisurik gabe sortuko diren enplegu-eskariak asetzeko. Talentua behar dugu trantsizio energetikoa eta digitalizazioa bezalako arloetan, baita etorkizuneko teknologia berrien eta sektoreen arloetan ere. Lanbide-heziketaren eremuan, Euskadik ospe bikaina dauka nazioartean, baina aurreratzen jarraitu behar dugu lehen eta bigarren hezkuntza inklusiboagoetan, baita produkzio-egituraren premietara gehiago egokitzen den lanbide-heziketa batean ere. Ildo beretik, esfortzuak bikoiztu behar ditugu, gure unibertsitate-sistema nazioarteko erreferentziazko posizio batean kokatzeko, bikaintasunezko unibertsitate-hezkuntza finkatuz, bereziki, garapen ekonomikorako eta sozialerako funtsezkoak diren arlo eta gaietan.

Tokiko eremua ingurune bikaina da enpresen talentu-premiak identifikatze aldera, baita talentua aintzatesten eta zaintzen duen herritarren kultura bat sortzeko ere. Kultura horrek prestakuntza nabarmenduko du, bai hasierako prestakuntza, bai etengabeko ikaskuntza. Halaber, bokazio berriak sustatu eta erraztu egingo ditu eremu zientifiko-teknologikoetan, berebizikoak baitira sozialki aurreratuta dagoen gizarte oparo baterako.

Halaber, Euskadin, talentua zaindu eta mantendu behar dugu, garapen profesionalerako aukerarik onenak eskainiz. Eta, lan honetan, funtsezkoa da udal- eta eskualde-mailako administrazioek talentuaren eta enpresen arteko zubiak eraikitzea. Topaguneak eta enpresa-erronkak jorratzeko espazioak sortuz, betiere tokiko adimen kolektibotik abiatuta.

Horrez gain, Euskadira talentu berria erakartzearen alde egingo dugu. Talentu ikertzailea, talentu teknikoa, talentu ekintzailea. Izan ere, talentua bateratzen dugunean, ez dugu talentua gehitzen, baizik eta biderkatzen.

Talentua lortzeko munduko lehian, hiriak eta lurraldeak funtsezko eragileak dira. Tokiko mailaz gaindiko eremuekiko elkarlanean arituko gara, bertako herri eta hirietan instalatzen den talentua erabat integra dadin. Talentu horrek harrera ona izan dezan. Horrez gain, lagunduko diogu pertsona batek etortzea eta geratzea erabakitzeko bereizgarriak diren gauza txikiekin, bere talentu osoa eskain diezaion Euskadiren garapenari.

BERRIKUNTZA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOA

Berrikuntza eta garapen teknologikoa gero eta garrantzitsuagoak dira lurraldeen lehiakortasunerako eta ongizaterako.

EAJ-PNVren eskutik, Euskadik I+G+bren aldeko apustu garrantzitsua garatu egin du: Kalitaterik eta osperik handieneko zentro teknologikoak ditugu, gure enpresen proiektuetan parte hartzen dutenak, horiek babesteaz gain. Halaber, maila eta sektore guztietan I+G+b bultzatzeko programa eta pizgarri publiko garrantzitsuak ditugu.

Etorkizunean gainditu beharreko erronka bat da honako hau: enpresek eta, bereziki, ETEek teknologia xurgatzeko gaitasuna areagotzea lortzea eta digitalizazioa irmoki bultzatzea. Horrez gain, irmoago kudeatu behar dugu gizarte-berrikuntza eta berrikuntza ez-teknologia eta pizgarriak ezarri behar ditugu enpresen eremuko I+Gerako, arreta berezia jarriz, besteak beste, etorkizuneko teknologia berrietan, jasangarritasunean, deskarbonizazioan, ekonomia zirkularrean eta digitalizazioan.

Aipatutakoak herrialde-politika eta eremu handiak dira baina, horietan, tokiko eremuak errazteko eta bultzatzeko paper garrantzitsua dauka. EAJ-PNVren taldeek zuzendutako euskal udalerrietan, berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egingo dugu. Gure enpresen proiektuak eta premiak identifikatuz. Bere berrikuntza-proiektuak aitortuz, sozializatuz eta nabarmenduz. Berrikuntza-abaguneak hurbilduz gure ETEei. Herrien eta hirien garapen jasangarriarekin lotutako berrikuntza sustatuz. Erosketa publiko berritzailearen potentzial osoa baliatuz, udalerrriak balio sozialeko konponbide berriak esperimintatzeko espazioak izan gaitezten. Halaber, enplegua sortzeko potentzial osoa baliatuko dugu.

INBERTSIOAREN ETA GARAPEN EKONOMIKOAREN ALDEKO INGURUNE-BALDINTZAK

Euskadiko lurraldeek eta udalerriek lehiakorrak izaten jarrai dezaten nazioartean, inbertsioaren eta garapen ekonomikoaren aldeko ingurune-baldintzak mantentzen jarraitu behar dugu.

Horretarako, garrantzitsua da gure zerga-arkitektura egokitzea. Zerga-autonomia are gehiago ustiatzeko eta hobetzeko aurreratzen jarraitu behar dugu, berriro ere inbertitzea errazten duten, inbertsio berria erakartzen duten eta kalitatezko enplegua sortzea errazten duten zerga-pizgarriak garatuz.

EAJ-PNVtik, konpromisoa hartzen dugu azkenengo urteotan ekintzailtza sustatzeko egindako zerga-aldaketetan sakontzeko, hurrengo hamarkadetako enpresa handiak izango diren hazkunde-potentzial altuko enpresak sortzen laguntzeko. Enpresa horiek leku egonkor bat izango dute Euskadin, hazteko eta garatzeko moduko leku segurua eta konfiantzazkoa izango dena; horrela, kalitatezko enplegua sortu ahalko dute eta gizarte osoaren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen lagundu ahalko dute.

Baina, aurrekoaz gain, egungo zerga-arkitektura birplanteatu beharko da, lanaren errenten eta kapitalaren tributazioan oinarrituta dagoena. Hala, zerga-arkitektura negozio-eredu berrietara eta, besteak beste, ekonomia digitalaren berariazko pisu handiagora egokitu beharko da, horren Europa mailako lehiakortasuna handitzeaz gain. Gure zerga-sistemak, kontzertu ekonomikoaren bidez, nolabaiteko malgutasunarekin zergen bidezko erakargarritasun hori handitzea lor dezaketeten tresnak ditu.

Horrez gain, konpromisoa hartzen dugu udal eremuak garapen ekonomiko bultzatzeko. Inbertsioei bidea erraztuz. Gure industrialdeak eta enpresa-parkeak hobetuz. Inkubazio-espazio berriak sustatuz. Izapideak sinplifikatuz, betiere legezotasuna eta ingurumen jasangarritasunerako helburuak betetzea bermatuz, inbertsio-proiektuek erantzun azkarra jaso dezaten, baimenei dagokienez, alegia.

EUSKAL ESPAZIO EKONOMIKOAREN ESKALA HANDITZEA

EAJ-PNVren ustez, abagunea daukagu erakunde arteko akordioak eta akordio publiko-pribatuak sustatzeko, horrela egungo euskal espazio ekonomikoaren eskala handitzeko. Gaur egun, espazio hori ahulduta dago Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean eta are hauskorragoa da Iparralderekin. Akordio horiek sustatzeko, hiri- eta ekonomia-poloak administrazio-mugetatik harago sortzeko joera globala eta europarra baliatuko dugu eta, horri esker, prestakuntza-, teknologia-, industria- eta merkataritza-harreman irmoak eta iraunkorrak bultzatu egingo ditugu euskal foru lurraldeen eta herrialdeko hirien artean.

Eskala handitzea berebizikoa da ekonomia globalizatuago batean. Sinergia guztiak garatu behar ditugu eta, munduaren aurrean, enpresentzako eta ekintzaileentzako espazio handi erakargarria izan behar gara. Espazio berritzailea, bizi-kalitatea duena eta gizarteari eta ingurumenari dagokienez aurreratuta dagoena. Espaziorik onena enpresarik onentzat.

ENPRESA-ERABAKIGUNEAK MANTENTZEA ETA INDARTZEA EUSKADIN

Nahitaezkoa da enpresa-erabakiguneak Euskadin mantentzeko eta indartzeko lana biziagotzea. Hori egitea da bermerik onena enpresa horien funtsezko jardueren jarraitutasuna mantentzeko gure herri eta hirietan.

EAJ-PNVtik, elkarrizketa jarraitua eta erraza mantenduko dugu gure trakzio-enpresekin. Bere proiektuak ezagutzuz eta erraztuz. Epe luzerako lankidetzak irmoak ezarriz.

GIZARTE-ERANTZUKIZUNA DUTEN ENPRESAK

Euskadi mundu mailako erreferentzia bat da enpresa-eredu desberdina proposatzen duten kooperatiboa bezalako mugimenduetan. Enpresa sozialagoa. Ingurunearekiko konpromiso handiagoa duen enpresa. Pertsonak erdigunean jartzen dituen enpresa.

EAJ-PNVtik, enpresa-eredu hori defendatzen, sustatzen eta bultzatzen jarraituko dugu. Ekonomia sozialeko formulak dituzten enpresak eta bere konpromisoa beste formula batzuen bidez integratzen duten enpresak. Lehiakortasuna eta balioak uztartzen dituzten enpresak. Bere DNA eta korporazio-estrategian Garapen Jasangarrirako Helburuak integratzen dituzten enpresak.

Gure udalerrietan, gizarte-erantzukizuna duten enpresen oinarria handitzeko programak garatuko ditugu. Enpresa horiek udalerriko erronka eta proiektuetan inplikatu dira eta komunitate-garapenaren traktore gisa jardungo dute.

LEHIAKORTASUNA ETA GENERO-BERDINTASUNA

EAJ-PNVn, genero-berdintasunaren aldeko apustu irmoa egiten dugu, gizarte-justiziako elementua ez ezik, garapen-abagunea ere badelako. Euskal bereizgarri bat izan behar da emakumezkoek dagokien lekua okupatzea gizarte- eta ekonomia-bizitzaren eremu guztietan. Eta, horretarako, tokiko eremuaren ekarpena behar dugu.

Emakumearen papera indartuko dugu, bai enpresan, bai zientzia eta teknologian. Horretarako:

- Emakumezkoen presentzia ikusaraziko dugu enpresetan eta zientzian eta teknologian eta euskal ekonomian egiten duten ekarpena ikusaraziko dugu, bere presentzia publikoa sustatuz, emakumezkoen erreferenteak sortze aldera eremu horietan.
- Emakumezko enpresaburuen, ekintzaileen eta zuzendarien arteko lankidetzak sareak sortzea bultzatuko dugu.
- Indartuko ditugu genero-ikuspegia duten enpresa-ekimen berritzaileak garatzeko eta hazteko zerbitzuak eta babesak eta, gainera, beharrezkoa denean, emakumezko ekintzaileentzako zerbitzu eta programa berriak diseinatuko ditugu.

LEHIAKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA

EAJ-PNVren ustez, lehiakorra ez ezik, jasangarria ere baden eredu ekonomiko berria eraiki behar dugu.

Europako gainerako herrialdeek bezalaxe, Euskadik ingurumen-erronka handiei egin behar die aurre, hurrengo hamarkadan zehar gaintitu beharko ditugunak. Aldaketa sakona behar dugu produkzio-, prestakuntza- eta mugikortasun-sistemetan eta ohitura sozialetan, betiere ingurunea erabat errespetatuz.

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuek, Parisko Akordioak, Europako Itun Berdeak eta garatutako legeria berri ugariak premiazko jarduketa eskatzen dute hurrengo 10 urteetarako, maila guztietan. Zehazki, Europako Itun Berdearen xede nagusia Europar Batasuneko hazkunde ekonomikoko eta ongizateko eredu eraldatzea da, jasangarriagoa eta lehiakorragoa izan dadin. Hazkunde ekonomikorako eta lehiakortasunaren bultzadarako epe labur, ertain zein luzerako estrategia berri bat da.

EAJ-PNVn, ingurumenarekiko eta planetaren ingurumenaren hobekuntzarekiko errespetuzkoa eta bateragarria den ekonomia bat bultzatzeko konpromisoa berresten dugu. Izan ere, erabat egingarria da. Erakutsi dugu lor daitekeela. Zentzu horretan, Euskadi eredugarria da; erakutsi dugu ekonomikoki haz daitekeela eta, aldi berean, berotegi-efektuko gasen emisioak murriz daitezkeela.

Etorkizunean, kontsumo gero eta handiagoan (erauzi, ekoiztu, kontsumitu eta bota) oinarritutako ekonomia lineala ekonomia zirkularrarekin ordeztu beharko da; ekonomia zirkularra hondakinetan dauden baliabideak berriz ere erabiltzean datza. Gainera, eremu horretan gero eta lan-aukera gehiago daude.

Udal eremutik, produkzio-sistemaren trantsizio energetiko-ekologikoa sustatu ahal eta behar dugu. Trantsizio hori gure herri eta hirien jasangarritasunarekiko erantzukizun-ariketa gisa hartu behar dugu, baina baita lehiakortasun-abagune gisa ere. Izan ere, gure gizarteak gero eta ingurumen-kontzientziario handiagoa dauka. Horretarako, bereziki babestu beharko ditugu trantsizio energetiko-ekologikoa egitea konplexuagoa den enpresa-profilak eta sektoreak.

Halaber, trantsizio horrek dakarren enplegu-abagune handia baliatu behar dugu. Enplegu berde berriak ekarriko ditu, kalitatezkoak izango direnak eta lehiakortasun-kontzeptu berri bat bultzatuko dutenak: lehiakortasun jasangarria.

HIRI-MERKATARITZA

Merkataritza funtsezko sektorea da, eragin handia duelako enpleguari dagokionez eta gizarte-garrantzia handia duelako, baita hiriko bizitza egituratzeko gaitasun nabaria ere, saltokiak dauden tokiak bizirik daudelako.

EAJ-PNVk bere tokiko eta foruko gobernuetatik planteatzen duen merkataritza-politikaren ildoak saltokien modernizazioaren babesean oinarritzen dira, saltokiak kontsumo- eta erosketa-eredu berrietara egoki daitezen. Bertako merkataritzak zerbitzu-osagai nabariagoa izan behar du, hurbiltasunaren balioetik eta digitalizazio handiagotik abiatuta.

Halaber, merkataritzaren eta lurraldearen arteko lotura indartuko dugu. Sentsibilizatzeko eta tokiko saltoki txikietan kontsumitzea bultzatzeko kanpainak garatuko ditugu eta saltokiek ingurune hurbilarekiko konpromiso handiagoa garatzea sustatuko dugu.

Hiri-plangintzaren eta kudeaketaren bidez, herritarrentzat atseginaoak eta, hortaz, saltoki txikientzat erakargarriagoak diren udalerriak eta hiriak konfiguratzeko jarraituko dugu.

TURISMOA

Apurka-apurka, turismoa funtsezko sektore bihurtu da aurrerapen sozioekonomikorako eta udalerrien eta lurraldeen egitura ekonomikoaren dibertsifikaziorako. Turismoa jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren sektore dinamizatzailea da.

Halaber, turismoa “Euskadi markaren” sustatzaile handia da, baita gure udalerriak eta lurraldeak nazioartekotzeko eta irekitzeko prozesua bultzatzeko tresna itzela ere; aldi berean, helmuga gisa dugun profila hobetzen du, gizarte, ekonomia eta ingurumenari dagokienez aurreratuta dagoen euskal gizartearen irudia erakusten diolako munduari.

EAJ-PNVk, elkarlanetik eta erakunde arteko lankidetzatik, Euskadi eta bertako herriak eta hiriak helmuga jasangarria eta irisgarria izan daitezen lan egingo du.

Jasangarritasuna izango da gure helburu nagusia. Turismo Jasangarriaren Europako Gutuna bezalako ekimenen bitartez, jasangarritasuna zeharka sustatu egingo dugu turismoaren balio-katearen jarduera guztietan. Zehazki, etxebizitza turistikoak arautuko ditugu, etxebizitza horien kontrolatu gabeko hazkundeak gure herrien eta hirien identitateari eta bertako auzorik ezagunen bizikidetzari eragitea saihesteko.

Horrez gain, gure posizionamendu turistikoaren kultura-dimentsioa indartuko dugu, gure berezko nortasuna eta kultura erakutsiz munduari.

LEHENGO SEKTOREA ETA LANDA-GARAPENA

Nekazaritzako elikagaien sektoreak ez du pisu handirik indize makroekonomikoetan; hala ere, gure lurraldearen zati handi bat kudeatzeaz arduratzen da.

EAJ-PNVrentzat, Euskadiko udalerriak eta lurraldeak ezingo lireratek ulertu, lehen sektorearekiko eta landa- eta kostalde-ingurunearekiko loturarik gabe. Lotura hori ekonomikoa da, landa-ekonomian eragiten duelako. Lotura hori ingurumenekoa da, klima-aldaketaren aurkako borrokarako eta dibertsitatea hobetzeko duen paperagatik. Eta, gainera, lotura hori identitarioa eta kulturala da.

Horrez gain, COVID-19aren pandemiak erakutsi digu gure produktuak zaintzeak eta produktu horiek ekoizten dituztenen lana aitortzeak garrantzia erabakigarria dutela. Garrantzitsua da kanpoaldearekiko menpekotasuna murriztea eta neurri handiagoan kontsumitzea hurbiltasuneko produktuak.

EAJ-PNVtik, nekazaritzako elikagaien egitura irmo, jasangarri eta berritzaile bat indartzearen alde egiten dugu, hain zuzen ere, erakunde arteko lankidetzatik eta inplikaturako eragile ekonomiko eta sozial guztien elkarlanetik, 2022an onartutako Landa Garapenerako Euskal Legean ezarritakoarekin bat eginez. Legearen xedea landa- eta hiri-guneetako zerbitzuak eta bizi-kalitatea benetan parekatzea da.

Toki- eta eskualde-eremuen parte-hartze aktiboa funtsezkoa da belaunaldi-erreleboa aktibatzea bezalako kontuetan, erreleboa nahitaezkoa delako nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategien jarraitutasunerako. Horrez gain, parte-hartze hori berebizikoa da bertako nekazaritzako elikagaiak nabarmentzeko eta sustatzeko, produkzio-forma jasangarriagoak babestuz, zirkuitu laburrak indartuz eta lotura handiagoa sortuz sektorearen eta gizartearen artean.

EAJ-PNVn, jarraituko dugu landa-guneetan kalitatezko zerbitzuak bermatzen. Konektibitate fisikoa eta digitala hobetuz, garraibide publikoko konponbide berriekin. Mendekotasun-egoerei aurre egiteko gizarte-baliabide berriekin. Adierazpen kulturalak herrietara hurbilduz. Aisialdi-aukera berriak eskainiz.

Horrek guztiak lagunduko digu herritarrak landa-eremuan geratzea lortzen, baita landa-eremua bizitzeko eta garatzeko leku paregabea izan dadila lortzen ere.

2. Herri, hiri eta lurralde **JASANGARRIAK ETA OSASUNGARRIAK**

Europako gainerako herrialdeek eta munduak bezalaxe, Euskadik ingurumen-erronka handiei egin beharko die aurre hurrengo hamarkadan.

Susperraldi ekonomikoa azkartu behar dugu eta, horretarako, onartu behar dugu eraldaketa digitala, energetiko-klimatikoa eta soziosanitarioa abagunea direla gure lehiakortasuna indartzeko eta ingurumen-irizpideak integratzeko sektore guztietan.

Horrek eraldaketa sakona eta azkarra eskatzen du energia, produkzio, prestakuntza, mugikortasun eta gizarte-ohituren sistemetan, gure herrialdearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna ziurtatze aldera.

Europako Itun Berdearekin lotutako arau ugariak helburu horrekin jaino dira. Zehazki, jardunbide egokien kode bat da, etorkizun jasangarria bermatuko duena eta klima-aldaketa geldiaraziko duena, teknologia, ekonomia zirkularra, energia berriztagarriak, lurzorua babesa, airea eta ura bultzatuz eta biodibertsitatea zainduz, inor atzean utziko ez duen hazkunde jasangarria eta bidezkoa lortzeko eragileak baitira. Horrela, araudi-esparru berriarekin, lurraldearen jasangarritasuna, estrategia boluntario bat izan beharrean, nahitaez bete beharreko alderdia izango da.

EAJ-PNV ados dago estrategia berde berria behar dela; estrategia hori, batez ere, hazkunde-estrategia berria izan behar da eta ekonomia moderno batean oinarritu behar da, baliabideen erabilera eraginkorra eta lehiakorra izango dena. Apustu hori izan behar da etorkizunerako ekintzen funtsa, gure Basque Green Deal. Etorkizuneko ekintza horiek eredu sozial jasangarriago baterantz bideratuko dira, baliabide naturalen kudeaketa zuzen eta aurreratu batekin eta biodibertsitatearen eta natura-ondarearen sustapen, berreskurapen eta babesarekin, Euskadi ekonomia eredugarria, zirkularra, ekologikoa eta lehiakorra izan dadin, osasunerako eta ongizaterako positiboa den ingurumen-etorkizuna aurreikusiz eta diseinatuz.

Euskadik bere ibilbide-orria definitu du eta ahalik eta lasterren ezarri behar dugu, trantsizio hau abagune gisa eta lehiakortasunerako gako gisa baliatzeko eta, horrela, bidezko garapenean oinarritutako etorkizun jasangarriagoa lortzeko. Zentzu horretan, gure herriek eta hiriek eraldaketa horren lidergoa har dezaten lan egin behar dugu, jasangarritasunez haziz eta deskarbonizaziorantz eta energia-mendekotasun txikiagorantz aurreratu, zehazki, ekintza eta proiektu handizaleen bitartez.

Ingurumen-erronka horiei aurre egiteko, beharrezkoa da horiek eragiten duten eraldaketa behar bezala kudeatzea ahalbidetzen diguten tresnak erabiltzea. Horretarako, funtsezkoak dira ezagutza, erantzunkidetasun publiko-pribatua, sentsibilizazioa eta finantziarioa, baina azkenengo elementua berebizikoa da. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak areagotu behar ditugu trantsizio energetiko-klimatikoaren onurarako, zalantzarik gabe, trantsizio horrek lehiakortasuna, osasuna eta ongizatea hobetuko dituelako.

Eta elkarrekin egin behar dugu, auzolanean. Administrazioek, enpresek, gizarte zibilak eta herritarrok paper garrantzitsua daukagu berotegi-efektuko gasak murrizteko eta klima-aldaketara egokitzeko helburuetan aurrera egiteko, zehazki, mugikortasun-jarduketan bidez, ingurumena babestuz, 0 kilometroko produktuak kontsumituz eta energia berriztagarria sortuz. Eta, gainera, herritarren eta gizartearen parte-hartzearekin egin behar dugu. Gizartea inplikatu eta gizartea entzunez eta etengabe eta gardentasunez informatuz erronkei eta lortutako aurrerapenei dagokienez. Izan ere, jasangarritasuna, batez ere, norberaren erantzukizun handia da.

LURRALDE JASANGARRIAK

EAJ-PNVren ustez, klima-aldaketaren aurkako borroka banakako eta taldeko ingurumen-erantzukizunaren ardatz nagusia izan behar da lurralde-eremu guztietan.

EAJ-PNVk uste du nahitaezkoa dela, udal eremuan, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko politikak eta neurriak irmoki bultzatzea. Politika horiek arrisku klimatikoak identifikatu beharko dituzte; etorkizuneko belaunaldiak jasan litzaketen ingurumen-kalte konpongaitzak saihesteko neurriak ezarri beharko dituzte eta naturan

oinarritutako konponbideak eskaini beharko dituzte. Tokiko klima- eta energia-planak udalen eta eskualdeen klima eta energiaren eremuko ekintzaren erreferentziako tresnak izan beharko dira. Horretarako:

- Aldatu gabeko lurzorua ez okupatzearen alde egiten jarraituko dugu, baita naturalizatutako lurzorua kontserbatu eta hobetzearen alde ere, gutxiegi erabilitako industria- eta hiri-espazioen aprobetxamenduaren bidez.
- Baliabide hidrikoen eta kalitatezko uraren hornidura-sareen kudeaketa optimizatuko dugu, bai etxebizitzentzat, bai nekazaritza-ustiategientzat eta industria-jarduerentzat.
- “Produzitu-erabili-bota” paradigma zaharrean oinarritutako ekonomia lineal batetik ekonomia zirkular baterako trantsizio-prozesuarekin jarraituko dugu. Ekonomia zirkularraren printzipioak arau honetan inspiratzen dira: “murriztu-berrerabili-birziklatu”.
- Neurri handiagoan txertatuko ditugu gure kontratazioan erosketak publiko eta pribatu berdeko politikak.
- Ekonomia zirkularreko estrategiaren garapenarekin jarraitzeko konpromisoa indartuko dugu; estrategia bideratuta dago baliabideen alferrikako galerak murriztera, hondakinen birziklapenaren eta biltegiatzearen eremuetan ekoberrikuntza sustatzera eta, tokiko mailan, enplegu berdea bultzatzera, zirkularitatea lortzeko bide gisa.
- Natura-ondarea babesteko jarduketak bultzatuko ditugu, ondarea kontserbatze aldera. Horretarako, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatu, jasangarritasunez erabili, hobetu eta leheneratzeko betekizunak jasoko ditugu gure politika guztietan.
- Hiri- eta lurralde-azpiegitura berdeak hobetuko ditugu, biodibertsitatearen galera geldiarazteko, karbono-hustubideak hobetzeko, bero-olatu aurre egiten laguntzeko eta ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak areagotzeko.

ENERGIA-MENPEKOTASUN TXIKIAGOA. ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

Azkenengo urteotan, bereziki, bizi izan ditugun gertaera soziosanitario eta geopolitiko desberdinak direla-eta, energia oso ondasun preziatua bihurtu da eta, aldi berean, nahitaezkoa da gizartearentzat. Familia, erakunde eta enpresen errekerimenduak asetzeko gai den etengabeko energia-horniduraren premia, jasanezina izateaz gain, lorrezina izan daiteke.

Europako ekonomiak ahultasun handia dauka erregai fosilen inportazioaren aurrean eta, horren ondorioz, energia-ereduaren aldaketa azkartzeko berehalako erantzuna eman behar izan da. REPowerEU programa Europako Itun Berdearen barruan sartuta dago eta bere helburua da, apurka-apurka, energia berriztagarrien produkzioa eta erabilera handitzea, 2030ean, kontsumitutako energiaren % 45 izan daitezen. Horrek esan nahi du 2020ko zifra (% 22) bikoiztu nahi dela.

Euskadik irmoki jasangarria den energia-politika baten erabateko garapena azkartu behar du, ekonomiaren zein ingurumenaren ikuspegitik. Energia-politika horrek, apurka-apurka, erregai fosilekiko menpekotasuna deuseztatu behar du, energia berriztagarrien hedapen azkartuaren, energiaren aurrezpenaren eta energia-horniduren eraginkortasunaren eta dibertsifikazioaren bidez. Aldi berean, berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna lortu behar dugu, orain arte bere potentzial kutsatzaile-gatik gaitutako energia-iturrien erabilera itzultzea saihestuz. Aurreko guztiarekin batera, karbono-hustubideak hobetu beharko dira.

EAJ-PNVk berezko energia-produkzioa handitzearen alde egiten du, funtsean, iturri berriztagarriekin, lur eta itsasoko parke eolikoan, parke fotovoltaikoen, hidrogenoarekin energia sortzeko proiektuen, geotermiaren, olatuen eta biomasaren bidez. Horretarako, azpiegitura berriztagarri berrien ezarpena lurraldearen ingurumen-balioen kontserbazioarekin bateratu egingo da. Horretarako:

- Baimenak lehenetsi eta arindu egingo ditugu eta hirigintza-araudiaren beharrezko aldaketak proposatuko ditugu, energia produzitzeko proiektu berriak ezartzeko.
- Hurbileko sorkuntza sustatuko dugu, energia-menpekotasuna murriztea ziurtatzeko eta etengabeko arrazoizko hornidura bermatzeko. Horretarako, autosorkuntza eta autokontsumoa, sorkuntza banatua eta tokiko energia-erkidegoak sustatuko ditugu.
- Titulartasun publikoko eraikin, instalazio eta kokalekuei aplikatzeko kudeaketa-ereduak eta tresna berriak aktibatuko ditugu.
- Herritarrek trantsizio energetikoan parte hartzea ahalbidetzen duten tresnak eta sistemak bideratuko ditugu.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Gizakion jarduerak eragindako kutsadura altua edo tenperaturen igoera bezalako ingurumen-arazoen aurrean, airearen kalitatea hobetzea bereziki garrantzitsua da eta, orain, elementu giltzarrietako bat da, ingurumena eta osasuna zaintzeko kontuan hartu beharrekoa.

Airearen kalitatea hobetzen laguntzeko, nahitaezkoa da mugikortasun jasangarria garatzea gure herri eta hirietan. Beharrezkoa da are gehiago indartzea garraibide publikoa, bizikleta eta oinezkoen mugikortasuna; hurbiltasuneko eta tokiko produktuen hornidura lehenestea; hiri-guneak planifikatzea, trafikorik eta kutsadurarik handieneko jarduerak eta azpiegiturak herritar gehien dauden guneeetatik aldentzeko eta, azkenik, hiri-diseinua lantzea, oinezkoekin eta bizikletekin atsegina den hiri baterantz.

EAJ-PNVrentzat, Euskadik mugikortasun-erronka handiei egin behar die aurre, bai ibilbide luzeko sareei dagokienez, bai tokiko konektibitate-sareei dagokienez. Azpiegituren etorkizuneko zuzkidura ekonomiaren trakzio-elementutzat hartu behar da, lurraldea egituratuko duena eta faktore erabakigarria izango dena inbertsio berriak erakartzeko. Horrekin lotuta, mugikortasuna hobetzeko, funtsezkoa da intermodalitatea eta interoperabilitatea indartzea; gainera, salgai jasangarriagoen banaketaren aldeko apustua egin behar da, azken miliako logistika eta banaketa eraginkorragoen bitartez, funtsezko lanak baitira Euskadi bezalako hain lurralde industrialean. Horretarako:

- Jarraituko dugu mugikortasun elektrikoa defendatzen, erregai berdeetarako trantsizioa sustatzen eta bizikletaren zein garraibide publikoaren erabilera bultzatzen.
- Mugikortasun aktiboagoa eta garbiagoa sustatuko dugu, baita aldaketa kulturala ere, bizikleta gehiago erabil dadin leku-aldaketa profesionaletarako eta aisialdiko leku-aldaketetarako garraibide gisa.
- Erakunde arteko akordio sozial handia sustatuko dugu, garraio publikoko sistema berria eratzea azkartzeko; sistema berri hori ez da hain kutsagarria izango eta irisgarria, segurua, egituratua eta arrazoizkoa izango da lurralde guztientzat eta, horrez gain, benetako aukera lehiakorra izango da ibilgailu partikularra erabiltzeari uzteko.
- Erregai fosilak kontsumitzen ez dituzten eta berotegi-efektuko gasen emisiorik eragiten ez duten trenbidea bezalako garraibideak eusten dituzten azpiegiturei eskainitako babes mantenduko dugu.
- Areagotuko ditugu kutsatzen ez duten hiri-autobusak eta udal zerbitzuen ibilgailuak.

- Berrikuntza eta adimena sustatuko ditugu garraio-bide sare guztietan. Euskadi lurralde aitzindaria izan daiteke garraio-sistema digitalizatu, automatizatu eta autonomoen entsegua eta ezarpenean, sektore honetan diharduten enpresa ugariekin eta eremu honetan adituak diren ezagutza-zentroekin elkarlanean, tokiko administrazio desberdinen bultzadaren pean lan egingo dutenak.
- Formulak garatuko ditugu, bestelako erregaiak erabiltzen ez dituzten edo, bere teknologia edo propulzioagatik, emisio-maila zehatz batzuk gainditzen dituzten ibilgailuak emisio baxuko hiri-eremuetara sartzeko mugatze aldera. Gainera, horretarako, oinezkoentzako gune eta bidegorri berriak ezarriko ditugu.
- Erabilerak berrantolatuko ditugu gure plangintzan, emisio-eremuak herritarrengandik aldentuz, ibilgailuak sartzeko mugak aplikatuz eta trafiko lasaituko eremuak ezarri. Horrez gain, aparkaleku-politika berrikusiko dugu, disuasio-aparkaleku gehiago eta garraio-bide publiko desberdinekin lotutako aparkaleku gehiago sortuz.
- Urratsak ematen jarraituko dugu garraio-bide-tituluak bateratzeko. Garraio-bide publikoaren erabilera ahalik eta gehien errazten duen txartel bakarra.

BARNE-KOHESIOA DUTEN LURRALDEAK. HIRI-BERRONERATZEA

EAJ-PNVren ustez, gizarte-kohesioa berebiziko balioa da gizarte-justiziarako, baita bizikidetzeta eta komunitate-garapen erreala eta eraginkorretarako ere.

Pertsonen kohesioaz gain, herri eta hiri askotan, auzoen kohesioa behar dugu. Auzo eta pertsona guztiek izan ditzaten aukera berberak.

Horregatik, EAJ-PNVn, auzoak leheneratzeko eta suspertzeko politika handizale baten alde egiten dugu. Horretarako:

- Esku-hartze integraleko programak ezarriko ditugu, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-adierazlearen arabera, gehien behar duten auzoetan.
- Ahalik eta gehien murriztuko ditugu narriatutako eta bereizitako inguruneak, hiri-berroneratzearen eta bizi-kalitatearen alde eginez, bai hiri-eremuan, bai landa-eremuan, uneoro lehenetsiz pertsonak, bere adina, izaera, jatorria, generoa, etxebizitzak, hezkuntza eta laguntza-zerbitzuak, baita bere hezkuntza- eta lan-aukerak ere.
- Lurraldeari dagokionez orekatuta dauden espazio sozialak bultzatuko ditugu, non zenbait gune husteko prozesuak eta biztanleriaren leku-aldaketa nabariak saihesten diren.
- Udalerriak eta lurraldeak berrantolatuko ditugu, espazio gehiago emate aldera berdeguneei eta komunitate-erabilerako guneei.
- Koordinatutako esfortzu gehigarria egingo dugu honen inguruko jarduketari dagokionez: hiri-berroneratzea, udalerrien erresilientzia, hiri-ekipamendua, mugikortasun jasangarria eta lurzorua erabileren banaketa. Horretarako, programa integralak garatuko ditugu, hiri-agenda global baten zuzendaritzapean.
- Hirigintza-formula eta tresna berritzaileak ezarriko ditugu, erabiltzen ez diren industria-espazioak ahalik eta lasterren leheneratze eta berraktibatze aldera, administrazioen arteko elkarlanean arituz, espazio horiek berriro ere merkaturatzea eta produktibitate itzultzea errazteko.
- Formula berriak garatuko ditugu herritarrak leheneratzeko eta biziberritzeko prozesuetan inplikatzeko lortzeko.

LURRALDE OSASUNGARRIAK ETA BIZIGARRIAK

Hiri osasungarriagoak sustatzeko, oinezkoentzako espazio gehiago duten hiriak sortu behar dira, seguruagoak eta arnasgarriagoak direnak eta ke gutxiago dutenak, besteak beste.

EAJ-PNVren ustez, tokiko administrazioek posizio pribilegiatua dute osasuna bultzatuko duten inguruneak sortzeko, herritarrengandik hurbil daudelako eta bere arazo zehatzen inguruko ezagutza praktikoa dutelako. Horrez gain, herritar guztien osasuna ekitatez eta eraginkortasunez hobetzen laguntzen duten politika publikoak ezartzeko eskumenak dituzte eta gaitasuna daukate herritarren parte-hartzea modu operatiboagoan eta arinagoan antolatu ahal izateko osasunaren sustapenean.

Horretarako:

- Lurzoru industrialak leheneratu eta deskutsatzeko prozesua biziagotuko dugu.
- Gazteen artean ohitura osasungarriak sustatzeko ekimen berriak abian jarriko ditugu, arreta berezia jarritz adikzioen prebentzioan, adikzio teknologiko berriak barne hartuz.
- Adinekoei zuzendutako ohitura osasungarriak sustatzeko ekimen berriak garatuko ditugu.
- Ibilbide eta zirkuitu osasungarriak sortu eta sustatu egingo ditugu.
- Udal kirol-instalazioen erabilera mankomunatua sustatzen jarraituko dugu, baita kirolaren eta ariketa fisikoaren onuren gaineko kontzientziatzea areagotzen laguntzen duten tokiko ekitaldiak antolatzen eta babesten ere.

3. Herri, hiri eta lurralde **KOHESINATUAK ETA SOLIDARIOAK**

Egun, Euskadi autogobernatutako gizartea da, beste herri batzuekin elkarlanean ari dena. Gizarte irekia eta askotarikoa da eta berezko nortasuna, hizkuntza eta kultura ditu. Gure gizartea gero eta askotarikoagoa da adinari, jatorriari eta genero-orientazioari dagokienez baina, aldi berean, kohesionatuta dago eta solidarioa, parte-hartzailea eta berdinzalea da. Gure gizarteak gizarte- eta enpresa-egitura indartsuak ditu, baita gero eta irmoagoa den gizarte-babeseko sistema ere.

Gure gizartearen ezaugarri eta balio hauek inspiratzen eta eusten dituzte EAJ-PNVren politikak. Eta, bereziki, gizarte-politikak, askatasun, berdintasun eta solidaritatean aurrera egiten jarraitzeko, pertsona guztiek izan ditzaten beharrezko babesak, bere bizitza-proiektua autonomiaz hedatzeko.

Gizarte-politika eta politika ekonomikoa konektatuta daude. Gizarte-babeserako sistemak jarduera ekonomikotik lortzen diren baliabideak behar ditu. Eta, aldi berean, jarduera ekonomikorako beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak sortzen eta mantentzen ditu pertsonengan. Pentsa dezagun, adibidez, hezkuntzan eta lanbide-heziketa dualaren aldeko euskal apustuan. Edo gizartearen gaztetzearen, jaiotzekin edo immigrazioarekin lotutako politiken bidez, eta jarduera ekonomikoaren arteko harremanean. Edo etxebizitzarako sarbidean, berebizikoa dena gure gazteak emantzipatzeko eta bere bizitza-proiektuak garatzeko, sektore ekonomiko garrantzitsu baten puntako elementua izateaz gain.

EAJ-PNVtik, berezko identitatea duen gizarte baten eraikuntzan inplikaturik gaude; gizarte hori askotarikoa eta demokratikoa izango da, ekonomikoki garatuta eta kohesionatuta egongo da eta, horrez gain, giza eskubideekiko eta Garapen Jasangarrirako Helburuekiko konpromisoa izango du. Eta konpromisoa hartzen dugu gizarte-kontratua printzipio horietatik abiatuta eraikitzeko eta etengabe eguneratzeko, tokiko eremuan ere bai.

ZAINTZEN EREDU BERRIA

Zaintzak ahalik eta autonomiarik handienarekin gizarteratzeko babesak dira eta lau sektoreek ematen dituzte, erakunde- eta familia-zaintza barne hartuta, baita enpresek eta entitate sozialek (hirugarren sektorea) antolatutako boluntarioen eta elkarrekiko laguntzaren bidez emandakoa ere.

Zaintzen eredia eraldatzeko, erakunde-zaintzaren pisua handitzen jarraitu behar da, zaintzaileei zuzendutako informazio, orientazio, prestakuntza eta arnasaldirako zerbitzuak eta prestazioak barne hartuz, baita bizitza pertsonala, familia eta lana adiskidetzeko neurriak barne hartuz ere. Aurreko guztiarekin batera, zaintzan, gizonezkoen erantzunkidetasuna bultzatu behar da. Gainera, oreka bilatu behar da zaintza profesionalen eta ez-profesionalen bidez.

Azkenengo urteotan, zaintza-eredua eraldatu egin da eta, eraldaketa horretan, zaintzak ematearen gaineko erantzukizun publikoaren hedapenak eragin berezia izan du, zehazki, gizarte-zerbitzuen euskal legearen bidez. Euskal Gizarte-zerbitzuen Sistemaren zorroak legea garatzen du eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea aitortzen du eskubide subjektibo gisa.

EAJ-PNVtik, konpromisoa hartzen dugu zaintzen ereduaren eraldaketan aurrera egiten jarraitzeko. Horretarako:

- Bizitza-ziklo osorako eta zeharkako gizarte-zaintzen eredu bat sustatuko dugu, lau sektore sozialen lankidetzan, erantzukizun publikoan eta lidergoan oinarrituta. Gure herriak eta hiriak pertsonak zaintzen dituzten herri eta hiri bihurtuko ditugu.
- Erantzunkidetasun handiagoa sustatuko dugu zaintzetan, baita norberaren zaintza ere.
- Profesionalizatutako zaintza finkatuko dugu.

- Familia-zaintza aitortuko dugu eta nabarmenduko dugu, baita horren ordezkartzaren sustapena ere, zaintzaileei ahotsa emanez.
- Pertsona eta bere harremanetan zentratutako zaintza-eredua hedatuko dugu, onuragarria dena zaindutako pertsonentzako zein zaintzaileentzako.
- Zaintzen tokiko ekosistemak garatuko ditugu, eremuan bertan operatzen duten sektoreen eta eragileen sareko lanaren bitartez.
- Zaintzaileei zuzendutako arnasa-zerbitzuak bultzatzen jarraituko dugu.
- Arreta-piramidea irauliko dugu. Komunitatean bertan emandako lehen eta bigarren mailako arreta indartuko dugu bere etxebizitzan bizi direnentzat eta kontingentzia desberdinetako egoitza-arretak komunitate-arretari dagokionez duen pisua murriztuko dugu.
- Hirugarren sektore sozialak ordezkatzutako ekintza solidario antolatua sustatuko dugu.
- Berrikuntza eta ikerketa sustatuko ditugu bizi arteko zaintzen arloan.

FAMILIAK ETA HAURRAK

Familia-mota ugariak instituzio sozial bat dira eta funtsezko ekarpena egiten dute honakoari dagokionez: bizitza-ziklo osoko zaintzak, garapen pertsonala, sozializazioa, balioen transmisioa, gizarte-kohesioa eta loturen eraikuntza. Izan ere, euskal gizarteak ekarpen hori behar du.

Gainera, haurrak eta nerabeak eskubideen subjektuak dira eta, horregatik, bere garapenaren protagonistak izan behar dira, baita babesteko, prebenitzeko eta sustatzeko eginkizun hirukoitza jasotzen duen politika integral baten hartzaileak ere.

Hortaz, EAJ-PNVrentzat, familiak eta elkarteak babestea eta elkarrekiko laguntzako eta erkidego-babeseko sareak babestea berebiziko tresna da gure ongizate-eredua eusteko. Eta hori guztia Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiarekin bat eginez.

EAJ-PNVtik, konpromisoa hartzen dugu familiak aitortzen jarraitzeko, bere aniztasun osoarekin, baita familien ekarpen soziala aitortzen jarraitzeko ere. Horretarako, politikak eta neurriak bultzatuko ditugu; horiek, batetik, bere erantzukizuna mugatuko dute eta, bestetik, bere eginkizun soziala eutsiko dute. Babesak eredu-aniztasunera egokituko ditugu eta arreta berezia jarriko dugu sor daitezkeen desberdintasun-egoeretan, esaterako, guraso bakarreko familiei dagokienez. Horretarako:

- Haurrentzako tokiko zerbitzuak indartuko ditugu.
- Gizonezkoen erantzunkidetasuna bultzatuko dugu seme-alaben zaintzan.
- Haurren eta nerabeen parte-hartze aktiboa sustatuko dugu tokiko eremuan, baita haurrentzako udalerrri lagunkoiak ere.
- Haur bermea bultzatuko dugu haur eta nerabeen oinarrizko premiak eta funtsezko eskubideak asetzeko eta, bermearen garapenean, Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egingo dugu.
- Tokiko eremutik, osasun-zerbitzuekin elkarlanean, osasunaren prebentzioa eta sustapena babestuko ditugu, genero-ikuspegiarekin, eta arreta berezia jarriko dugu haurren eta nerabeen osasun mentalean.

GAZTERIA

Gazteria-zerbitzuak eta gazteriarekin lotutako zeharkako politikak bultzatzea eta belaunaldi arteko itun bat eraikitzea funtsezkoa da gazteen sozializazio-prozesuei eragiten dieten aldaketa sozial sakonei erantzuteko; izan ere, aldi berean, aldaketa horiek berebizikoak dira erronka demografikoari aurre egiteko eta gizartea gazteagotzeko.

Horretarako, jarraituko dugu gazteentzako kalitatezko lan-aukerak eskaintzen dituzten gazteen enplegua sustatzeko politikak bultzatzen, baina, horrez gain, beharrezkoa da berariazko zeharkako emantzipazio-politikak ezartzea, honakoak bezalako bestelako elementu batzuk jasoko dituztenak: alokairu soziala, zerga-kenkariak eta etxebizitza bat lortzeko edo diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzeko laguntzak, emantzipazioa errazteko beharrezkoak diren informazio-, orientazio- eta laguntza-zerbitzuez gain.

EAJ-PNVtik, konpromisoa hartzen dugu, tokiko eremuan, jarduketa-multzo hau sustatzeko Eusko Jauriaritzarekin elkarlanean. Halaber, konpromisoa hartzen dugu Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen hedapena bultzatzeko.

Gainera, tokiko eremuan, belaunaldi arteko itun bat sustatu eta hedatu egingo dugu, erakundeen, gizarte zibilaren eta gazteen arteko lankidetzatik. Itun horren barruan, gazteek parte hartzeko mekanismoak indartuko dira, tokiko politikak definitu, ezarri eta ebaluatzeko. Horrela, gazteak tokiko garapen jasangarriaren benetako protagonistak izango dira. Aurrekoarekin batera, itunean, neurri handizaleak jasoko dira gazteek aukera izan dezaten etxebizitza bat lortzeko bere ingurunean eta arazoizko prezio batean, bere bizitza-proiektuak garatzeko beharrezko lehenbiziko urratsa delako.

ADINEKOAK

Euskal gizartea historiako gizarterik anitzena da. Adinekoen kolektiboa heterogeneoa da, askotariko egoerak, adinak eta belaunaldiak hartzen dituelako barne.

Adineko gehienak autonomoak diren arren, normalean, politikak mendekotasun-egoeretan dauden pertsonetan zentratzen dira. Horregatik, hain zuzen, prebentzio- eta sustapen-politika berriak bultzatzen hasi gara, adineko guztiei laguntzeko bere proiektuen garapenean, pertsonaren dimentsio guztiak kontuan hartzen dituen bizitza betearen ikuspegi batetik.

Adineko gehienek partekatzen duten desira da osasun onarekin zahartzea, autonomia ahalik eta gehien mantentzea eta etxean zahartzea, beharrezko laguntzarekin. Eta, aldi berean, aurrekoa gizarte-babeseko sistema osoaren helburu estrategikoa da: gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, enplegua... Bizitzan zehar autonomia sustatzea lehen mailako gizarte-inbertsioa da.

Gainera, adin horietara heltzen doazen belaunaldi berriek gaitasun berriak dituzte, baita bizitzaren, eskubideen eta sektore publikoarekiko harreman-formaren inguruko itzaropen desberdinak ere. Izan ere, belaunaldi berriek politikan eta gizartearen eraikuntzan aktiboki parte hartzeko eskatzen dute.

Gizarteak bizi-itzaropena handitu behar du osasun onarekin eta, horrez gain, adinekoen talentua eta ezagutza baliatu behar ditu. Bizi-itzaropen handiagoa arrakasta zientifikoa, soziala eta pertsonala da. Eta, aldi berean, abagune bat da enplegurako, ekonomiarako, kulturarako, solidaritaterako edo parte-hartze sozialerako, adinekoek ekarpenak egiten dituzten beste eremu batzuen artean.

Estrategikoki borrokatzen dugu adinekoen nahi gabeko bakardadearen aurka eta adinkeraren aurka; hortaz, adinekoen eta horien ekarpenaren gaineko ikuspegia aldatu behar da, bere parte-hartzea bilatuz eta estigmatizazioa deuseztatuz. Aurrekoarekin batera, politikak, programak eta baliabideak belaunaldi arteko ikuspegi batekin disei-

natu behar dira, parentesi artean jarriz adina. Horrela, adinekoek ere herritar guztiei zuzendutako baliabideak eta abaguneak baliatu ahalko dituzte bere bizitza-proiektuak bultzatzeko. Era berean, belaunaldi arteko kohesioan aurreratu behar da, belaunaldi guztiek goza dezaten aukera-berdintasunaz eta, horrela, bizitza-proiektuak hasi eta hedatu ditzaten.

EAJ-PNVtik, konpromisoa hartzen dugu politikak adinekoen borondateak eta desirak errespetatuz eta genero-ikuspegiarekin sustatzeko. Politikak haiekin eta haien sustatuko ditugunez, bere egoera, itxaropen, premia eta gaitasun desberdinetara egokituko ditugu. Horrez gain, konpromisoa hartzen dugu honakoa egiteko: bere autonomia sustatzea; etxean bizitzen jarraitzea eta bere proiektuak bizitza betearen ikuspegitik garatzea ahalbidetzen dieten tokiko eremuko baliabideak hedatzea; bere parte-hartzea bultzatzea eta tokiko komunitatean eragiten duten bere ekimenak eta belaunaldi arteko ekimenak babestea.

ARRETA SOZIOSANITARIOA

Euskadin, arreta soziosanitarioaren xedea pertsonen autonomia eta osasun-egoera hobetzea da, gizarte-zerbitzuen sistemaren eta osasun-sistemaren jarduketa koordinatuaren bidez. Helburua da pertsonak nahi duten ingurunean jarraitzea lortzea, arreta pertsonalizatua emanez eta arreta horrek bere bizi-kalitatea eta zaintzetan parte hartzen duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duela bermatuz, betiere errespetatuz pertsonen bizitza-estiloak eta eskubideak.

Esfortzu honetan, ez gara zerotik abiatzen; izan ere, Euskadin, koordinatutako arreta soziosanitarioko ibilbide luzea eta egiaztatua dugu, garapen ekitatibo, inklusibo eta jasangarria lortzeko beharrezko euskarria dena.

Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategiaren esparruan, EAJ-PNVtik, aurreratzen jarraitu nahi dugu kalitatezko arreta soziosanitarioko sistema baten eraikuntzan. Berariaz eta lehenasunez, lehen mailako arreta soziosanitario eraginkorren hedapena bultzatuko dugu; hori lortzeko, erakunde arteko koordinazioa eta arretaren buruen eta profesionalen nahitaezko lankidetzak izango ditugu, baita beste sistema batzuen ere. Horrez gain, herritarrek, hirugarren sektoreak eta ekosistema soziosanitarioko gainerako eragileek hartuko dute parte. Sistema horren zerbitzuak udalerritara eta eskualde guztietara helduko dira. Hau da, pertsona guztiengana helduko dira.

GIZARTE-KOHESIOA

Euskal gizartearen gizarte kohesionatua da eta Estatuko batez bestekoaren oso azpitik dauden txirotasun- eta bazterkeria-adierazleak ditu. Hala eta guztiz ere, pobrezia-egoera batzuk kronifikatzen ari dira.

Bazterkeriaren edo bazterkeria- eta txirotasun-arriskuaren faktore nagusiak adina, jatorria eta autonomia-maila dira eta faktore horien konbinazioak kudeatu beharreko diskriminazio anizkoitzeko egoerak sortzen ditu. Horrez gain, egiaztatu egin da belaunaldien arteko desberdintasuna areagotu egin dela, errentaren banaketari dagokionez. Halaber, ikusi da gazteek zailtasun gehiago dituztela emantzipatzeko eta jatorrizko familia-etxetik irtetea lortzeko.

EAJ-PNVrentzat, gizarte-kohesioa kontratu sozial baten emaitza da. Kontratu hori etengabe eraikitzen da, premia eta baliabideei eta eskubideei eta betebeharrei dagokionez. Hain zuzen ere, honako elementuek orientatzen dute kontratu edo elkarrekiko konpromiso hau: partekatutako proiektua, balio komunak, gizarte-erlaketetarako egokitzapena, errealitate-printzipioa eta politiken koherentzia. Horren barruan, gizarte-babeseko euskal sistemak ziurtatzen du, gizarte aurreratu batean, eskubideak benetan gauzatzea.

Pertsonak norbanakoak dira eta, hezteko, bere osasuna zaintzeko eta gizarteratzeko, etengabeko babes integralak behar dituzte bere bizitza-ziklo osoan zehar. Babes horiek pertsonalizatuak izan behar dira; bere parte-hartzearekin definitu eta artikulatu behar dira eta, gainera, pertsonen ingurunean eman behar dira. Horretarako, politika soziala behar da, letra larriekin. Testuinguru horretan, EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du honakoa egiteko:

- Komunitate, hiri eta herri kohesionatu, inklusibo eta lagunkoia sustatzea, baita adin, genero, jatorri eta autonomia-maila desberdinak dituzten pertsonen arteko bizikidetzaren sustatzea ere. Horretarako, pertsona guztien integrazioa, autonomia eta parte-hartzea bultzatuko dira eta sexismoaren, adinkeraren, xenofobiaren eta aporofobiaren aurka borrokatuko da.
- Tokiko eremuan etxerik gabeko pertsonentzako, haurren bermerako eta gazteen emantzipaziorako estrategiak hedatzea.
- Toki- eta foru-mailako politika publikoetan genero-berdintasuna eta intersektionalitatea sustatzea, diskriminazio anizkoitzeko (besteak beste, generoagatik, adinagatik, jatorriagatik eta autonomia-mailagatik) egoerei aurre eginez. Aurrekoarekin batera, belaunaldi artekotasuna sustatuko da eta adin guztietarako politikak, programak eta zerbitzuak bultzatuko dira, baita kultura artekotasuna ere, gizarteratzea erraztuz.
- Tokiko eremutik, kalitatezko enplegu-politika baten eta etxebizitzaren politika sozial baten garapenean eragitea, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Horrez gain, berdintasunaren (generoa), migrazioen (jatorria) eta belaunaldi artekotasunaren (adina) itunen hedapenean eragingo da.

ANIZTASUNA

Bertako udalerrien eta lurralde historikoen aberastasuna gure aniztasuna da. Askotarikoak gara norbanako gisa eta erkidego gisa.

EAJ-PNVren ustez, aniztasunak aukera-berdintasunarekin bateragarria izan behar du. Beraz, helburua da berdintasuna eraikitzea aniztasunean edo aniztasuna aukera-berdintasunean. Horrez gain, gure ustez, komunitate inklusibo bat eraikitzea banakako eskubide eta betebeharrak benetan gauzatzea bermatzeaz harago doa. Horrez gain, ez da nahikoa pertsona bakoitzak gainerakoak errespetatzea edo desberdintasuna toleratzea. Aniztasunaren erronka handia elkarrekin bizitzea eta gizarte askotarikoa eraikitzea da.

Horrela, espazio publikoa berreskuratu behar dugu espazio komun gisa, diskriminazio- eta estigmatizazio-egoerak, mekanismoak eta prozesuak ikusaraziz eta detektatuz, horiei aurre egiteko pertsona guztien gaitasunen eta potentzialtasunen aitortzatik, eta bere eskubide eta betebeharrak benetan gauzatzea sustatuz, entzutea, enpatia eta harrera bultzatuz. Horretarako, hurrengo 4 urteetan, EAJ-PNVtik lehentasun hauetan lan egingo dugu:

- Gizarte-estereotipoak deuseztatzea, pertsonen potentzial osoa garatzeko oztopoak eraisteko.
- Diskriminazioa pairatzen duten taldeekin lotutako antolakuntzak eta pertsonak babestea gizarte-estereotipoen aurkako ekintzetan, horiek baitira errealitatera egokitutako eta aurreiritzirik gabeko irudi bat proiektatzea gehien interesatzen zaienak.
- Giza eskubideak eta justizia soziala sustatzea maila globalean, deszentralizatutako lankidetzako politika publiko bat finkatuz. Politika hori tokiko mailako lankidetzaren eragilearen artean eta horiekin eraikiko da, baita bere kontrako alderdiekin eta gizarte zibilaren beste eragile batzuekin ere.
- Jatorri, kultura, arraza, adina, sexua edo gaitasunari dagokienez askotarikoak diren talde eta entitateen ekimenak trukatzeko eta hibridatzeko espazioak sortzea ezagueraz eta berariaz.

MIGRAZIOAK

Migrazioen eremuan, EAJ-PNVn, konpromisoa hartzen dugu pertsona eta familia migratzaileen erabateko gizarteratzea sustatzeko, kultura arteko, bizikidetza, berdintasun eta kohesioko eredu batetik, baita partekatutako euskal identitate eta kultura baten baterako eraikuntzatik ere.

Batetik, "jaso nahiko genukeena ematean" datza; izan ere, gure herria migratzailea izan da eta asiloa eta babesba behar izan ditu historiaren beste une batzuetan eta, hortaz, sentsibilitate berezia izan behar dugu. Bestetik, ziur gaude eredu honek gizarte-kohesioa indartzea ahalbidetuko digula.

Asko dago jokoan. Beharrezkoa da migratzaileak etortzea eta geratzea eta hemen aurrera egin dezaten, arreta berezia jarriz emakumezkoek eta gizonezkoek lortzen dituzten enplegu-motan eta enplegu horien prestakuntzan. Kohesionatua bezain anitza den euskal gizartea mantendu behar dugu eta pertsona eta familia guztiek bizi-kalitatea hobetzeko aukerak dituztela ziurtatu behar dugu. Gainera, pertsona hauek eskubide osoko herritartzat hartu behar ditugu, pertsona horiek ere badirelako gure gizartearen eraikitzzaileak. Gure hizkuntza eta kultura bizirik daude eta dinamikoak dira eta pertsona horiek bere sentitu behar dituzte eta, horrekin batera, partekatutako balioetan oinarrituta proiektatzen lagun dezakete.

Helburu horrekin, EAJ-PNVtik, hauxe egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Erakundeen eta lau sektoreen lankidetzagatik bereizitako harrera- eta gizarteratze-eredu bat aktibatzea, baliabide publikoetarako (erakundeak), enplegu duin baterako (enpresak) eta komunitate-bizitzarako eta bizikidetzarako (hirugarren sektorea, komunitateak eta familiak) sarbidea sustatze aldera.
- Ekimen berriak hedatzea heltzen direnean informazioa eta orientazio integrala emateko zerbitzuak bezalako eremuetan, baita komunitate-eremuko jarduerak ere: partekatutako aisialdia, hizkuntzen erabilera eta ikaskuntza, komunitate-babesletza edo gizarte-aholkularitza.
- Arreta berezia jartzea familia-babeseko sarerik ez duten gazte migratzaileek jasaten dituztenak bezalako zaurgarritasun bereziko egoeretan.
- Gure hirien eta herrien erakartzeko eta eusteko gaitasuna hobetzea.
- Emigratutako pertsonak eta familiak itzultzea erraztea eta euskal gizartearentzat interesgarriak diren proiektuekiko konexioa bultzatzea.
- Migrazioarako Euskal Itun Soziala hedatzea udal eta foru eremuan.

ETXEBIZITZA DUIN ETA ARRAZOIZKO BATERAKO SARBIDEA

EAJ-PNVrentzat, berebizikoa da etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzea euskal herritar guztiei. Eskubide horrek etxebizitza duin eta egoki baterako sarbidea ahalbidetuko du; etxebizitzak oinarritzko familia-erosotasunez gozatzeko beharrezko erraztasunak izango ditu. Horretarako, berebizikoa da etxebizitza publikoa bultzatzea, hutsik dauden etxebizitzak mugiaraztea eta etxebizitzen parke publikoa modu integralean kudeatzea, jasangarritasun- eta ekitate-irizpideekin.

Etxebizitza-politika herrialde-politika bat da baina, zalantzarik gabe, politika horrek etxebizitza duin baterako sarbide-aukerak eman behar ditu gure herri eta hirietan eta, gainera, bermatu behar du etxebizitzaren horren prezioa arrazoizkoa dela. Horregatik, udalerrien eta birgaitzeko tokiko eta eskualdeko sozietateen parte-hartzea funtsezkoa da.

lido horretatik, EAJ-PNVtik, hauxe egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Etxebizitza tokiko mailako ekintza-lehentasunen artean txertatzea.
- Aktiboki lan egitea Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuarekin, horren eskura jarriz etxebizitzaren tokiko premiei erantzun azkarrak emateko beharrezkoak diren udal baliabideak.
- Gure udalerrietan hutsik dauden etxebizitzak mugiarazten laguntzea, arrazoizko alokairuak lortze aldera.
- Etxebizitzarekin lotutako tokiko administrazio-izapideak erraztea eta azkartzea.
- Etxebizitza sozialaren egungo udal parkearen kalitatea eta erosotasuna hobetzea. Parke hori handitzea.
- Etxebizitza kolaboratiboa eta belaunaldi arteko etxebizitzak bezalako etxebizitza-eredu berriak sustatzea.
- Etxebizitza-birgaitzea bultzatzea, bereziki energia-eraginkortasunari eta irisgarritasunari dagokienez.
- Eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko zerga-pizgarriak eta laguntza zuzenak indartzea.
- Babes-zerbitzu berriak abian jartzea, baliabide gutxiago dituzten pertsonen etxebizitzarako sarbidea ahalbidetzen dieten berme publikoen programekin.

4. EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNA DAGOEN herri, hiri eta lurraldeak

EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNA

EAJ-PNVren ustez, emakumezkoen eta gizonezkoen benetako berdintasunak pertsona guztien erabateko garapenean laguntzen du, eremu sozialean, pertsonalean eta profesionalean. Era berean, berdintasunak balio solidarioak indartzen ditu eta demokrazian aurrera egiten laguntzeko balio du, baita gizarte bidezkoagoa, kohesionatua-goia eta garatuagoa eraikitzeko ere. Gainera, zalantzarik gabe, gure herri eta hirien garapen jasangarrirako abagunea da. Gaur egungo munduan, ezagutzak eta talentuak desberdintasunak baldintzatzen dituzte; hortaz, antolakuntzek eta lurraldeek ezin dituzte alferrik galdu bere gaitasunen % 50.

Foru eta toki eremuak dira herritarrengandik hurbilen daudenak; beraz, eremu horiek ezin hobeak dira benetako berdintasuna eraikitzeko. Egunero lan egin behar da berdintasuna eskaintzeko erakunde-, gizarte- eta ekonomia-espazio guztietan. Modu kolaboratiboan kudeatu beharreko erronka handizaleak definituz. Berdintasunak denoi eragiten digulako.

EAJ-PNVtik, agintaldi berri honetarako, ekintza-lehentasun hauek proposatzen ditugu:

- Adiskidetzean sakontzea, konponbide integralak eskatzen dituen erronka sozial handia delako, partekatutako lurralde-mailako estrategia eta diagnostikoetatik.
- Erantzunkidetasuna indartzea gure gizartearen esfera guztietan.
- Berdintasuna sustatzea gizarte- eta hezkuntza-eremuan, haurrek eta nerabeek adin goiztiarretatik barnera dezaten berdintasunaren balioa.
- Berdintasuna bultzatzea lan-eremuan, enpresak sentsibilizatuz berdintasunaren eta adiskidetzearen lehia-dimentsioari dagokionez.
- Emakumeen kolektibo desberdinei zuzendutako ahalduntze-programak garatzea.

Gainera, erronka handi gisa, indarkeria matxista gure gizartetik desagerrarazteko lan egin behar dugu. Genero-desberdintasuna gure udalerrri eta lurraldeetako erronka sozialik handienetako bat da eta emakumeen aurkako indarkeria desberdintasun horren adierazpenik handiena eta bortitzena da. Ahalik eta esfortzu gehien egin behar ditugu eskubideen urraketa hau deuseztatzeko, emakumeen aurkako indarkeriari uko egiteko kontzientziazio sozialeko lana indartuz, bereziki, belaunaldirik gazteenen artean eta arreta berezia jarritz jatorrian.

Hori lortzeko, gure ustez, berebizikoa da abiarazitako ekimenak indartzea eta estrategia berriak garatzea, gazteei tresnak eta baliabideak emango dizkietenak, indarkeria sexista ezagutzeko eta aitortzeko eta horren aurka egiteko, jokabide sexisten hezkuntzan eta prebentzioan lan eginez eta gazteak animatuz, paper aktiboagoa izan dezaten eraso-mota guztien aurrean, eta baliabide egokiak eskainiz horretarako.

5. AISIALDIA ETA KULTURAREN ERAGILE DIREN herri, hiri eta lurraldeak

Kultura partekatutako balioen multzo bat da eta balio horiek berebizikoak dira gure izateko arrazoia ulertzeko. Beste kultura eta gizarte batzuekin harremanetan, etengabe eraldatzen da. Horrenbestez, funtsezko elementua da herri baten identitate kolektiboa garatzeko eta babestu eta indartu behar da. Horrez gain, ezin dugu ahaztu kultura berebizikoa dela pertsonen banakako garapenerako, ezta kulturak dimentsio ekonomikoa duela ere. Izan ere, kulturaren sektoreak sormena bezalako zeharkako elementuetan eragiten du, funtsezkoak direnak berrikuntzarako. Hortaz, kultura zaindu eta sustatu beharreko garapen jasangarriaren eragile bat da.

Euskara euskaldunon berezko hizkuntza da. Gure DNAren parte da eta egunero nabarmentzen da edozein eremuko gizarte-elkarrekintzan. Familia-eremuan. Eremu profesionalean. Eremu sozialean eta komunitarioan. Horregatik, euskara zaintzea eta indartzea gure herriak eta hiriak zaintzea eta indartzea da.

KULTURA

EAJ-PNVrentzat, kultura eta kultura-politika gizarte-kohesiorako tresna dira, baita herritarren banakako zein erkidegoko balioak eraikitzeke tresna ere. Tradizionalaren eta berriaren eta berezkoaren eta unibertsalaren arteko elkarriketa emankor baterako espazioa da.

Komunitate-zentzu horrek gure memorian errotutako euskal kultura bat garatzea bultzatzeko eskatzen digu; aldi berean, kultura hori etengabe egongo da harremanetan kultura-jardunbide eta baliorik moderno eta aurreratuenekin, orainaldia eraikiz eta etorkizuna prestatuz.

EAJ-PNVk uste du foru eta toki eremuak berebizikoak direla kultura bultzatzeko. Hortaz:

- Gure tradizioak eta berezko adierazpen kulturalak babestu eta bultzatuko ditugu. Ezin dugu jakin nora goazen, nondik gatozen ahazten badugu.
- Tokiko kultura-elkarteak eta kolektiboak eta horiek garatzen duten jarduera babestuko ditugu. Eta udalerrri bakoitzeko parte-hartzearen eta lankidetzaren aberastasun-aktibo gisa txertatuko ditugu.
- Adin eta interes guztietarako jarduerak eskaintzen dituzten kultura-agendak garatuko ditugu. Horretarako, elkarlanean arituko gara eskualde-mailan, sinergiak baliatzeko eta kultura lurraldea bateratzeko eta kohesionatzeko tresna gisa erabiltzeko.
- Beste kultura batzuen ezagutza sustatuko dugu eta kultura integrazioa, bizikidetzeta eta balioak bultzatzeko elementu gisa erabiliko dugu.

AISIALDIA ETA KIROLA

EAJ-PNVren ustez, aisialdia eta kirola gizarte-garapenaren eta bizi-kalitatearen sinonimoak dira. Horregatik, egunero lan egiten dugu gure herri eta hirietan, aisialdi aberasgarri eta osasungarri batez gozatzea bermatzeko eta ariketa fisikoa adin guztietara hedatzeko, pertsonen osasun onerako errezetarik onena ez ezik, bitartekoa ere badelako hezkuntza, aukera-berdintasuna eta giza garapen jasangarriko funtsezko balioen transmisioa ziurtatzeko.

Hurrengo 4 urteetarako, gure helburua da erraztasunak areagotzea, pertsonak bere aisialdiaz goza dezaten eta kirola egiteko aukerak izan ditzaten ingurunerik hurbilenean, pertsona bakoitzaren kezkei eta lehentasunei erantzunez. Horretarako, ildo hauetan lan egingo dugu:

- Aisialdi- eta kirol-azpiegituren zuzkidura hobetuko dugu.

- Aktiboki lan egingo dugu aisialdia eta kirola sustatzearekin lotutako tokiko eta lurraldeko elkarteekin.
- Emakumezkoen presentzia sustatuko dugu aisialdi- eta kirol-jardueretan, bereziki bere presentzia oraindik ere mugatua den jardueretan.
- Gure identitatea eta balioak indartzen dituzten aisialdi-jarduerak bultzatuko ditugu eta bertako kirolak sustatuko ditugu.
- Komunikazio-mekanismoak indartuko ditugu, udal mailako aisialdi- eta kirol-eskaintza ezagutarazteko, eta are gehiago sustatuko ditugu eskualde-mailako jarduerak.

EUSKARA

EAJ-PNVren ustez, hizkuntza Euskadiko udalerrien eta lurraldeen gizarte-eraikuntzaren bizkarrezurraren parte da. Gure udalerriak eta lurraldeak mundura eta beste hizkuntza batzuetara irekita daude, baina berezko hizkuntza indartzetik abiatuta. Gure udalerriak eta lurraldeak anitzak dira hizkuntzaren eremuan ere bai eta, hortaz, beharrezkoa da ekintza positiboko politika publikoak garatzen jarraitzea; politika publiko horiek euskararen erabilera-eremuak eta abaguneak hedatzea ahalbidetuko dute eta, gainera, apurka-apurka, herritar guztiei bermatuko diete hizkuntza-eskubideen benetako berdintasuna. Laburbilduz, politika horiek benetako berdintasun eraginkorra ahalbidetuko dute, hizkuntza-bizikidetzaren harmoniatsu eta berdinzale baten horizontean.

Hiztunik gabe ez dago hizkuntzarik, hiztunek ematen baitiete ukigarritasuna hizkuntzei. Laburbilduz, euskararen biziraupena eta bizitasuna euskal hiztunen erabileraren menpe daude. Euskara gizarte-bizitzako ohiko erabilera-hizkuntza gisa indartu nahi dugu, gero eta pertsona gehiagok erabil dezaten komunikatu, ikasi eta partekatzeke.

- EAJ-PNVk zuzendutako erakundeen udal- eta foru-ekintzak euskararen erabilera soziala sustatzen jarraituko du gure herrietan eta hirietan. Horretarako:
- Euskararen erabilera indartuko dugu erakundeen barne-kudeaketan eta erakundeen eta herritarren arteko harremanean.
- Ekintza positiboko programak garatuko ditugu, euskara sustatzeko gutxiago erabiltzen den eremuetan, adibidez, enpresa-eremuan.
- Euskara ikasteko aukerarik izan ez zutenek eta beste herrialde batzuetatik gure gizartera etortzen diren pertsonak euskara ikastea bultzatuko dugu.
- Gure euskalkiak zaindu eta babestu egingo ditugu, berezko aberastasuna direlako, eta horiek belaunaldi belaunaldi transmititzea erraztuko dugu.
- Gizarte- eta hezkuntza-eremuan, haurrek eta nerabeek euskara erabiltzea bultzatuko dugu, ingelesa bezalako beste hizkuntza batzuen erabilerarekin batera. Izan ere, ingelesa jakitea berebizikoa da haur eta nerabeen garapen pertsonal eta profesionalerako, baita lurraldeen ongizate ekonomikorako ere.

6. Herri, hiri eta lurralde **SEGURUAK**

SEGURTASUNA

Segurtasuna funtsezkoa da gizarte baten garapenerako, bizikidetzarako eta ongizaterako. Segurtasunari esker, etorkizunarekiko konfiantza handitzen da eta, gainera, horrela, epe luzerako bizitza- eta komunitate-proiektuak pentsatu eta egikaritu daitezke.

Euskadin, objektiboki, segurtasun-maila oso altua daukagu, nahiz eta, batzuetan, gizartearen pertzepzioa ez datorren bat adierazle objektiboen errealitatearekin. EAJ-PNVtik, erakunde desberdinen artean partekatutako segurtasun integraleko sistema batean sakondu nahi dugu. Sistema hori udalerrri eta lurralde historiko bakoitzaren errealitate desberdinetara egokituko da, pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea zaintze aldera, horien arteko errespetua eta bizikidetzak baketsua ziurtatuz, zehazki, gatazken ebazpen goiztiarraren, prebentzioaren eta prestakuntzaren bidez, baita jarrera antisozialen kontrolaren eta zuzenketaren bidez ere. Sistema koordinatua eta eraginkorra izango da, segurtasun publikoan esku hartzen duten eragile desberdinen artean eta segurtasun pribatuarekin ere bai. Horren helburua izango da herritarren segurtasuna bermatzea, gizartearen oinarritzako premia baita, are gehiago indartuz prebentziozko polizia-estrategiak eta segurtasunaren pertzepzio ona mantenduz herritarren artean. Horretarako:

- Euskadiko Udaltzaingotako langileen belaunaldi-erleboia erraztuko dugu, emakumezko langileak sartzea erraztuz eta bultzatuz, sarbide eta garapen profesio-naletarako politika positiboaren eta sustapen-planen bidez.
- Babes egokia bermatuko diegu indarkeriaren biktime diren emakumeei, EBA sistema (Etxekoen eta Emakumeen Babesa) bultzatuz: Euskal Poliziaren espediente bakarra indarkeria matxistaren biktime diren emakumeen babeserako.
- Segurtasun publiko eta pribatuaren balibideen eta gaitasunen kudeaketa eraginkorra eta orekatua ziurtatuko dugu segurtasuneko eskualde-planen garapeneren bidez, demarkazio desberdinetako segurtasun integrala bermatzeko tresna gisa, betiere kontuan hartuz horietako bakoitzaren arriskuak eta ezaugarriak.
- Baso-suteen aurkako babes-sistema indartuko dugu, suteak itzaltzeko aireko bitarteko berriak abian jarri, suhiltzaile-zerbitzuen eta mendietako zerbitzuen lana babeste aldera.
- Larrialdietako Udal-planak eguneratuko ditugu, herritarrik zaurgarrienak sensibilizatuz prebentziorako berariazko ekintzen inguruan, egiturak eta bitarteko materialak egokituz, erantzun egokia bermatzeko arrisku-egoeren aurrean.
- 2030erako, 2020rekin alderatuta, hildakoen eta zauritu larrien kopurua, gutxienez, % 50 murriztera bideratutako ekintzak ezarriko ditugu, trafiko-istripuen ondoriozko zero biktimen ikuspegia aplikatuz, hiri eremuan eta hiri arteko eremuan, 2050eko horizontearekin. Horrela, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuek Bide Segurtasunari dagokionez ezarritakoa beteko da.
- Trafiko-istripuak prebenitzeko politikak bultzatuko ditugu, arreta jarri kolektiborik ahulenen babes berezian (oinezkoak, bizikleta-, ziklomotor- edo motozikleta-gidariak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak erabiltzen dituztenak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak), arriskuko jokabideek bideen eremuan duten eragina murrizte aldera.
- Erakundeen arteko lankidetzak eta gizarte zibilarekiko lankidetzak indartuko dugu Bide Segurtasunaren Aldeko Euskal Itunaren esparruan, esfortzuak bateratzeko eta pertsona guztien, hau da, gidarien edo oinezkoen bide segurtasuna bultzatzen duten estrategiak partekatuz.
- Poliziaren presentzia areagotuko dugu gatazka-arrisku handiagoa dagoen guneeetan edo espazioetan.
- Euskal herritarrek aisialdi "SEGURU, ARDURATSU ETA OSASUNGARRIAZ" goza dezaten saiatuko gara. Horretarako, aisialdi-forma desberdinen arriskuen inguruko prebentzio- eta kontzientziazio-kanpainak egingo ditugu. Era berean, horien prestakuntza eta garapena kontrolatuko dira.

7. MODU IREKIAN ETA ERAGINKORTASUNEZ KUDEATUTAKO herri, hiri eta lurraldeak

EAJ-PNVtik, lortu dugu Euskadik erakunde irmoak dituen herrialdea izatea; bertako erakundeek gure garapena trakzionatzen eta dinamizatzen dute. Bertako erakundeek entzuten dute eta herritarren eta gizartearen parte-hartzea sustatzen dute. Erakunde gardenak dira eta kontuak ematen dituzte. Erakundeak erantzukizunaren eta eraginkortasunaren printzipioetatik kudeatzen dira, betiere bilatuz ematen dituzten zerbitzu publikoen kalitaterik handiena.

2030 AGENDA BENETAN ABIAN JARTZEA

2023-2027 foru- eta toki-agintaldian, nahitaezkoa da benetan abiaraztea 2030 Agenda tokiko eta lurraldeko politika publikoetan. Ekintzaren hamarkadaren tarterik erabakigarriena hastear dago eta, hortaz, politika publikoak aipatutako agenda horretatik eraiki behar dira. Egungo erronkek, besteak beste, klima-ekintzarekin lotutako erronkek eta ingurumen-erronkek berez, arazo ekonomiko eta sozialekin batera, zeharka eragiten dute foru eta tokiko eskumen askotan. Beraz, are erabakitasun handiagoz azkartu behar dugu 2030 Agendaren tokiko ezarpena, zehazki, Urkullu lehendakariak bultzatutako NOW ekimenarekin bat eginez.

INTEGRITATEA

Euskadi eta, zehatzago, EAJ-PNVk gobernatutako erakundeak erreferente bat izan dira eremu publikoen integritate-politikaren bultzadan.

Erakunde-integritateko sistema handizaleak onetsi ditugu, baita jokabide-kodeak eta iruzurraren aurkako neurrien planak ere. Halaber, hiru lurralde historikoetan, gai hau arautzen duten foru arauak onetsi ditugu.

Gai hau funtsezkoa da gure erakunde-ekintzaren zilegitasunerako eta, horregatik, EAJ-PNVtik honetarako konpromisoa hartzen dugu:

- Ezarritako erakunde-integritateko sistemak hobetuko ditugu eta jardunbide egokiak hedatuko ditugu beste erakunde batzuetara. Integritate-estrategiak bultzatuko ditugu antolakuntzen sistema etikoak indartzeko eta prebenitzeko kultura bat garatzearen alde egiten duten foru eta tokiko erakundeetan.
- Herritarren artean, balioen kultura bat sustatuko dugu, baita besteak errespetatzeko eta betebeharrak betetzeko kultura bat ere, bereziki, ingurumen-jasangarritasunari, herritarren espazio publikoko erantzukizunei eta berdintasunari dagokienez. Halaber, zerga-betebeharrak betetzea sustatuko dugu, bizikidetzaren oinarria baita.

BENETAKO GARDENTASUNA

EAJ-PNVk gobernatutako euskal erakundeak aitzindariak izan dira gardentasun-politikak abiarazten eta ebaluazio-organismo nagusien aintzatespena jaso dute.

Edonola ere, gardentasuna beti bizirik dagoen erakunde-politika bat da eta, horretan, etengabe hobetu behar dira betetze-estandarrak, herritarrei ematen zaien informazioa publikoa indartzeko eta jarduera publikoa kontrolatzeko tresnak eskaintzeko. Horretarako:

- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eraginkortasuna bermatuko dugu eta eskubidea gauzatzea sustatuko dugu, boterearen kontrol demokratikorako bitarteko gisa. Eskubide hori gauzatzeko prozedurak hobetu eta arindu egingo ditugu.
- Aldizka ebaluatuko dugu tokiko erakundeen gardentasuna, herritarren parte-hartzetik abiatuta.

- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak garatuko ditugu, jakin dezaten oso garrantzitsua dela foru eta tokiko erakundeek egiten dutena eta baliabi-deak zertan gastatzen dituzten ezagutzeko eskubidea.

ENTZUTE AKTIBOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Tradizionalki, herritarren parte-hartzea tokiko eta foruko jarduera publikoaren parte izan da. Erakunde hauek herritarrengandik hurbil daude eta, horregatik, eremu paregabea dira herritarrekiko harremanerako eta gizartearen premiak zein sentsibilitateak identifikatzeko.

Euskal foru- eta toki-eremuan, EAJ-PNVk sustatutako esperientzia bereziki arrakastatsuak bizi izan dira entzute aktiboa bultzatzeko eta herritarrak inplikatzeko tokiko politika, zerbitzu eta programen diseinuan, egikaritzapenean eta ebaluazioan. Euskadiko Tokiko Erakundeen Legeak garrantzia argia ematen die herritarren parte-hartzeari eta deliberazio publikoko prozedura parte-hartzaileei, baita herritarren kontsultei ere.

Euskal foru eta toki erakundeek herritarrek parte hartzeko sistemen eraikuntzan sakontzen jarraitu behar dute; sistema horiekin, gobernu-ekintzan, ikuspegi berritzaileagoak txertatuko dira, adimen kolektiboa baliatuko dutenak eta adostasun zabalago batean oinarrituko direnak. EAJ-PNVren lidergoarekin, gure erakundeek entzute aktiboa sustatuko dute, baita politika publikoak batera sortzea eta ebaluatzea ere. Horretarako:

- Herritarren parte-hartze digitala sustatuko dugu, bere erabilera sustatuz eta horren ariketa inklusiboa babestuz, bazterkeria-egoeran dauden edo gaitasun digitalik ez duten herritarrei laguntza telematikoa emateko unitateak sortzearen bidez. Horrez gain, noski, zuzeneko parte-hartzea bermatuko dugu, behar duten kolektiboentzat.
- Herritarren batzarrak eta panelak bultzatuko ditugu politika publiko berrien inguruan eztabaidatzeko eta horiek diseinatzeko.
- Gardentasun kolaboratiboa txertatuko dugu herritarrek parte hartzeko eremuan.
- Herritarrek parte hartzeko balioak sustatuko ditugu haurren eta gazteen artean, bereziki hezkuntza-sistemarekin partekatutako esperientzien bidez.

DATU IREKIAK ETA DATU PERTSONALEN KUDEAKETA

EAJ-PNVren ustez, euskal foru eta tokiko erakundeek datu pertsonalak babestearen inguruko Europako, Estatuko eta Euskadiko araudia eraginkortasunez eta zorroztasunez aplikatzea bultzatu behar dute. Horrez gain, datu-gobernantzako sistemen garapena sustatu behar dute, erabaki publikoak hartzeko informazioa edukitzea erraztuko dutenak eta, gainera, abagune-elementu bat izango direnak jarduera ekonomiko berria sortzeko. Horretarako:

- Datu-gobernantzako sistema baten ezarpena sustatuko dugu 20.000 biztanletik gorako udaletan eta foru erakundeetan.
- Euskal foru eta tokiko erakundeetako datu irekien egungo eredia egokituko dugu 2019/1024 Zuzentarauaren (EB) premisetara.
- Datu irekien foru eta udal planak onetsiko ditugu.

KONTU-EMATEA

Kontu-ematea boterearen jardun demokratikoaren oinarrian dago. Gobernu baten programa politikoaren egikaritzapena (helburuak betetzea) kontrolatzeko eta horren segimendua egiteko tresna bat da; hori egiten da epe batean (kronograma) bete beharreko helburuen arabera ordenatutako gobernu- edo agintaldi-plan batetik abiatuta, neurketarako edo konpromisoen betetze-maila ebaluatzeko adierazle objektiboak jasoko dituen.

EAJ-PNVren ustez, kontu-ematea nahitaezko tresna bat da gure tokiko eta foruko erakundeen gobernantza aurreratu eta irekirako. Gure helburua izango da bere erabilera hedatzea eta orokortzea. Horretarako:

- Ebaluazio-konpromiso eta adierazle zehatzak eta gardenak jasotzen dituzten gobernu- edo agintaldi-planak onetsiko ditugu.
- Apurka-apurka, plan horiekin lotutako kontu-ematerako sistema gardenak ezarriko ditugu, bide telematikoak zein gizarte-egiturarekiko eta herritarrekiko topaketak jasoko dituztenak.
- Kontu-ematearen dimentsio parte-hartzailea sustatuko dugu, entzute aktiborako eta parte-hartzerako espazioak izan daitezen.

PROZEDURA ETA IZAPIDEEN SINPLIFIKAZIOA. ADMINISTRAZIO-ZAMEN MURRIZKETA

Administrazioa digitalizatzeko prozesuek administrazio-prozedurak sinplifikatzea bultzatu behar dute, baita kudeaketa telematiko batek erraztasunez konpon ditzakeen alferrikako izapideak baztertzea ere. Horrela, aldi berean, enpresentzat eta partikularrentzat kostu ekonomiko altua eragiten duten administrazio-zamak murrizten dira.

Horretarako:

- Foru eta tokiko gobernu-mailetan, izapideak sinplifikatzeko eta desburokratizatzeko prozesuak sustatuko ditugu, administrazio-prozeduren arauketa juridikoaren eta digitalizazioaren esparruan.
- Izapideak sinplifikatzeko eta administrazio-zamak murrizteko foru eta udal planak onetsiko ditugu.
- Izapideak sinplifikatzeko eta administrazio-zamak murrizteko proba pilotuak burutuko ditugu unitate zehatz batzuetan. Horien emaitzak ebaluatuko ditugu. Eta, positiboak badira, apurka-apurka, ikuspegi hori hedatuko dugu antolakuntza osora.
- Eraginkortasunez ezarriko dugu “behin bakarrik aurkeztearen” kontzeptua administrazioaren aurrean aurkezten diren dokumentuen administrazio-kudeaketan.

LIDERGO EXEKUTIBOA ETA ENPLEGU PUBLIKO PROFESIONALA

XX. mendeko laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan, foru- eta toki-administrazioek masiboki kontratatu zituzten langileak. Horregatik, administrazio horien langile-egiturak nahiko zahartuta daude eta belaunaldi-erleboia behar dute, gaur egun jada gertatzen ari diren eta hurrengo urteetan biziagotuko diren erretiro-prozesu handien aurrean.

Horrekin batera dator aldi baterako langileak egonkortzeko erronka, nabaria dena euskal administrazio askotan. Era berean, iraultza teknologikoaren erronkak sektore publikoaren ataza eta lanpostu (dotazio) askori eragingo die eta profil profesional teknologiko berriak eskatuko ditu. Horrez gain, zuzendaritza- eta langileria-egituren profesionalizazioa eta bitarteko lidergoa eraginkortasunez garatzeko premia objektiboa da, foru eta tokiko administrazioek etorkizuneko erronka berriei aurre egin diezaieten pertsonen kudeaketari dagokionez.

EAJ-PNVren ustez, aurretik azaldutako erronka guztiengatik, 2023-2027 agintaldia bereziki garrantzitsua izango da foru eta tokiko administrazioentzat, antolakuntza egokiak eratu beharko dituztelako lidergo berria hartu beharko duten etapa berri baterako. Horretarako:

- Giza baliabideen plangintza estrategikoa bultzatuko dugu euskal foru eta toki administrazio desberdinetatik. Hurrengo urteetan erretiroen ondorioz hutsik geratuko diren lanpostuak edo dotazioak identifikatuko ditugu eta ezagutzaren eta gaitasunen kudeaketa- eta transferentzia-politika bat ezarriko dugu, bereziki antolakuntzaren postu erabakigarrietan.
- Foru eta tokiko antolakuntzen zuzendaritza- eta erantzukizun-mailen apurka-apurkako profesionalizazioa eta bitarteko lidergoa indartzearen alde egingo dugu.
- Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak burutuko ditugu.
- Belaunaldi-erreleboa sustatuko dugu eta gaitasun berriak dituen kualifikatutako talentu berria erakarriko dugu: gaitasun teknikoak, hizkuntza-, lidergo- eta dinamizazio-gaitasunak eta taldeka lan egiteko gaitasunak.
- Hautaketa-prozesuak berrituko ditugu.
- Are gehiago sustatuko ditugu etengabeko prestakuntza eta ikaskuntza.

AURREKONTU-ZORROZTASUNA

Aurrekontu publikoak egiterakoan, jarraitu beharreko funtsezko irizpidea diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka da eta hala izaten jarraitu behar du.

Epe luzerako ikuspegia da administrazioen bereizgarrietako bat, baita foru eta tokiko administrazioena ere. Ekonomia ziklikoa da; hortaz, prest egon behar da testuinguru ekonomikoak okerrera egiten duenerako. Erakunde-erantzukizunak aurrekontu-defizitak eta zorpetzea murriztera eramaten gaitu ekonomia okerragotzen denean. Laburbilduz, erakundeak indartu behar dira eta baliabide ekonomikoak eta finantzarioak eduki behar dira epe luzerako politika publikoak mantentzeko gai izateko, zehazki, datu ekonomikoak ahultzaren direnean. Aurrekoaz gain, legaturik onena utzi behar diogu hurrengo belaunaldiari; hortaz, aurrekontu-emaizta arduratsua eta jasagarria izan behar da.

Zorionez, Euskadiko zerbitzu publikoen eskaintza kalitatezkoa da eta, ingurukoekin alderatuta, kalitatea askoz handiagoa da. Zerbitzu publiko horien finantza-estaldura bermatzeko, behar bezala kudeatu behar dira zerga-tresnak; tresna horiek euskal lurralde historikoen eskumen esklusiboa dira, baita EAJ-PNVren kudeaketa politikoaren lorpen bat ere. Zerbitzu publikoak berebizikoak dira eta zaindu behar ditugu, kudeaketa eraginkorrako batetik eta aurrekontu-zorroztasunik handienetik. Euro publiko guztiak dira garrantzitsuak, denonak direlako.

FISKALITATEA

Ekonomia Ituna-Hitzarmena eskubide historikoen funtsa eta autogobernuaren oinarria da; halaber, gure erakundeek azkenengo urteotan suertatu direnak bezalako erronkei arrakastaz aurre egiteko tresna da kontzertua.

Horregatik, hain zuzen ere, euskal administrazioen helburu nagusietako bat izan behar da ekonomia Ituna-Hitzarmenak aitortzen dizkigun gaitasunak indartzea, zerga-eskumenak behar bezala gauzatzea ahalbidetzeko helburuarekin, bai nazioartean, bai tokiko eremuan.

Izan ere, berezko zerga-sistema diseinatzeko gaitasunak eskatzen du euskal foru erakundeek nazioarteko zerga-ordena eraldatzeko prozesu sakonean parte hartzeko, zehazki, bere ordezkariak zerga-politikak eztabaidatzen diren nazioarteko foroetan parte hartuz. Eraldaketa-prozesu hori geldoa bezain saihestezina da eta organismo horietatik bultzatzen ari da, globalizazioaren eta digitalizazioaren ondorioz, harreman ekonomikoetan gertatzen ari diren egiturazko aldaketetara egokitzeko xedearekin eta gizarte gisa ditugun erronka nagusiak gainditzen laguntzeko helburuarekin. Herrialde gisa ditugun erronketan, fiskalitate egiten dugun balio-proposamenarekin batera, erreferentziazko herrialdeen fiskalitatea ere aztertu beharko dugu.

Hurrengo urteetarako diseinatzen den zerga-sistemak honakoari erantzun behar dio:

Batetik, behar besteko finantza-nahikotasuna sortzea, lurraldeko ongizate-estatua mantendu eta hobetzeko.

Bestetik, Euskadiko jarduera ekonomikoaren lehiakortasuna indartzea eta eustea.

Egungo ongizate-estatua eusten duen funtsezko oinarria industria indartsu baten konfigurazioa da. Industria indartsua, lehiakorra eta berritzailea, munduari umiltasunez baina handizaletasunez begiratzen diona. Industria hori gai izan behar da kalitatezko enplegua eta epe luzerako finantziario nahikoa sortzeko eta nahi dugun gizarte-ongizateko erdua garatzeko. Halaber, horri esker, Europako desberdintasun-mailarik txikienetakoa eta per capita errentarik handienetakoa duen lurraldea izan gaitzeko.

Fiskalitatea, erakunde-maila desberdinetako aurrekontuez gain, oinarritzko ardatza da, aipatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren neurriak artikulatzeko.

Fiskalitatea epe laburrerako aurrekontu-premiak finantzatzeko elementu gisa eta epe laburrera burutu beharreko proiektuak eta erronkak garatzearen berme gisa.

Uneoro bermatuz Euskadiko erakunde arteko arkitektura osatzen duten erakundeen egonkortasuna eta indar ekonomiko finantzarioa.

Araudi-aldaketak eta proiektuak egikaritzen dituen fiskalitatea, epe luzerako begirada nagusituz epe laburrerako emaitzen aurrean. Ekonomia Ituna-Hitzarmenak ematen digun eskumenean oinarrituta, politika publikoetan egonkortasuna lehenesten duen fiskalitatea nahi dugu, baita bere etorkizuneko proiektu pertsonala eta profesionala Euskaditik garatu nahi duten eragileei segurtasun juridikoa ematen dien fiskalitatea ere. Laburbilduz, nahi dugu fiskalitateak konfiantza nahikoa sortzea egitura ekonomikoan, Euskadin proiektuak sortu, garatu eta erakartzeko.

EAJ-PNVren zerga-politika garatu den eta etorkizunean garatuko den eremuak, besteak beste, kontu hauetan oinarritzen dira:

- Euskadiko erabakiguneak eustea. Horren adibide ona dira langileek enpresan parte hartzeko garatutako politikak. Batez ere belaunaldi-erleleboko garaietan, gerta daiteke erabakiguneak Euskaditik aldentzea.
- Lurraldean sortzen diren proiektu berriak bultzatzea eta babestea. Eremu honetan, ekintzailtzak eta barne-ekintzailtzak paper garrantzitsua dute. Eremu honetarako, berebizikoa da administrazioaren lehiakortasuna; izan ere, denbora faktorea funtsezkoa da lurraldean suerta daitezkeen proiektu berriak garatzeko.

Proiektuak garatzeko lurralde "atsegina" eta erakargarria izan behar dugu. Zenbat eta azkarrago garatu bere proiektua, are aukera gehiago izango dituzte posizio lehiakorra lortzeko bere merkatuan. Horrenbestez, beharrezko baldintza bat da administrazio azkarra eta eraginkorra edukitzea, enpresa-garapena errazten duten zerga-pizgarriekin.

- Pertsonak eta proiektuak erakartzea. Industria indartsua, lehiakorra eta berritzailea nahi badugu, gaitasunik onenak behar ditugu gure lurraldean. Erakarri behar ditugu atzerrira proiektu zientifiko teknologikoetan lan egitera joan diren pertsonak edo, bere garapen pertsonala eta profesionala lortzeko, Euskadira etortzea erabakitzen duten atzerritarrak. Azkenengo urteotan, eremu hori indartzera bideratutako zerga-neurriak ezarri dira eta, etorkizunean ere bai, beharrezko neurriak hartuko dira gure egitura ekonomikoak profesionalik gaituenak izan ditzan.
- Hauek dira gure zerga-politikaren barruan garatu beharreko beste eremu batzuk: erronka demografikoa eta herritarren zahartzea, klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa eta digitala.

Ekitatearen, progresibitatearen eta pertsona guztiek zergak modu ekitatiboan ordaintzen dituzten bidezko zerga-sistema bat garatzearen ikuspegitik, zerga-politikak jarraitu beharko du foru ogasunen jarduketara hobetzen. Hain zuzen ere, hori egin beharko du zuzeneko laguntzaren eremuan eta zergadunei lagunduz bere betebeharrak betetzen; horretarako, herritarrei arreta eta laguntza emateko kanal guztiak ahalik eta gehien indartuko dira eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ematen dituzten aukerak bultzatuko dira, horrela zerga-betebeharrak betetzearen zeharkako kostuak murriztuz. Aurrekoarekin batera, hobetzen jarraitu beharko du zerga-iruzurraren aurkako borrokaren jarduketetan, solidarioak ez diren praktikak desagerrarazteko, ongizate-estatuaren elementu nagusia arriskuan jartzen dutelako, baita gizarte gisa dugun izateko arrazoia ere.

Aurreko guztiarekin, Euskadiren ongizate-estatu hobetzeko finantziazio nahikoa lortu behar da. Eta, hortaz, hurrengo belaunaldiari lurralde aurreratuagoa eta kohesionatuagoa utziko diogu, sinesgarritasuna eta kaudimena dituzten erakundeetan oinarritutakoa.

8. ELKARREKIN SAREAN LAN EGITEN DUTEN

herri, hiri eta lurraldeak

Garapen Jasangarrirako 17. Helburuak aliantzak aipatzen ditu. Elkarte irmoak eta lankidetzak. Printzipioen eta balioen inguruko elkarte inklusiboak, baita giza garapen jasangarrira bideratutako ikuspegi eta helburu partekatuen ingurukoak ere.

Horregatik, foru eta toki erakundeetan 2030 Agendaren tokiko ezarpena areagotzeko, irmoki indartu behar da lankidetzak, gobernantza ireki eta aurreratu baten funtsezko elementu gisa.

MAILA ANITZEKO GOBERNUEN ARTIKULAZIOA. PARTEKATUTAKO LIDERGOA

Zalantzarik gabe, Euskal Herriaren lurralde-espazioan, gobernantza erabat beharrezkoa da, gobernu-maila desberdinak artikulatzeko ardatz gisa. Gure antolakuntza-eredua historia demokratikoaren tradizioan eta auzolanean oinarrituta dago; ereduak hurbiltasun-abantaila handiak eskaintzen dizkigu baina, aldi berean, konplexua da eta geruzatuta dago. Erakunde- eta eskumen-geruzapen horrek gobernantzaren ikusmolde berria aplikatzeko eskatzen du, maila anitzeko gobernantza-egituretan oinarrituko dena eta konponbide harmonikoak eskainiko dizkiona errealitate konplexuari.

EAJ-PNVren hurrengo lau urteetarako helburua foru eta tokiko politika publikoen artikulazio eraginkorragoa sustatzea da, erakunde arteko itunaren bidez. Horren bidez, foru- eta toki-eremuko politika komunak diseinatu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eta, horrez gain, lurralde historiko bakoitzean, foru- eta udal-gobernu mailen arteko topaketarako eta ituntzerako espazio eraginkorrak eraiki ahalko dira. Horretarako:

- Erakunde arteko gobernantza kolaboratiboa sustatuko dugu Euskadiko gobernu-maila desberdinen artean.
- Erakunde arteko itunak indartuko ditugu Euskadiren eremuan, zehazki, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren bitartez.
- Erakunde arteko itun-eredua eramango dugu lurralde historiko bakoitzera, foru eta tokiko erakunde-eragileek politika publiko sektorialen zein zeharkako politika publikoen bultzada, diseinua, egikaritzapena eta ebaluazioa berrelikatu ditzaten.
- Erakunde arteko itunak baliatuko ditugu 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak garatzeko, lan-mahaiak edo lanerako erakunde arteko taldeak artikulatuz, Garapen Jasangarrirako Helburu desberdinekin lotutako ekintza-jarraitibideak emango dituztenak gobernu-maila desberdinetan.
- Erakunde arteko itunak garatuko ditugu foru zein tokiko administrazioek Europako funtsak egikari ditzaten.
- Mankomunitateak, agentziak eta garapen-taldeak bezalako eskualde-lankidetzarako egiturak babestuko ditugu, baita politikak, zerbitzuak eta programak erkidetzeko proiektu berriak ere.

SEKTORE PUBLIKOAREN, HIRUGARREN SEKTOREAREN ETA SEKTORE PRIBATUAREN ARTEKO SAREAK. LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA ETA GOBERNANTZA KOLABORATIBOA

Gobernantzak ikuspegi zabala eskaintzen du eta, bere eguneroko funtzionamenduan, sare desberdinen eraikuntzan oinarritzen da: erakunde-sareak, bestelako erakundeekin lotutako sareak; hirugarren sektorearekiko sareak eta sektore pribatuarekiko sareak. Ereku publikoan berrikuntza txertatzearekin batera, sektore pribatuko jardunbide egokiak sektore publikoan aplikatu beharko dira eta, horrez gain, lankidetzak publiko-privatua bultzatu beharko da.

Euskadik enpresa-egitura berritzailea dauka eta, gainera, bere elkarre-egitura dentsua eta handia da lurralde historiko guztietan. Lehentasun bat baino gehiago, premia bat da foru eta tokiko erakundearen arteko sareak sortzea, euskal gizarteak aurre egin behar dien erronka handien tratamenduari ekiteko. Gizarte bezala gainditu behar ditugun erronkei erantzun zuzena emate aldera, nahitaezkoa da sinergiak sortzea eremu publikoaren eta pribatuaren artean, hirugarren sektorearekin eta enpresa- eta elkarre-egiturarekin.

EAJ-PNVtik, uste dugu hurrengo lau urteak erabakigarriak direla sareko gobernanta-ereduaren ezarpena amaitzeko, erakunde publikoen lidergo-paperaren inguruan bilduz irekidura-sistema bertikala zein horizontala, hirugarren sektoreko eta elkarre-egiturako enpresa-sektoreak inplikatu nahi dituena. Foru eta tokiko politika publikoak sortu, egikaritu eta ebaluatzeko zirkulu bertutetsua, aldizkako foruen eta sareen bidez edo foru eta sare egonkorren bidez, berrikuntzaren eta jardunbide egokien palanka gisa. Horretarako:

- Helburu komunak partekatu nahi dituzten eta berrikuntza publiko sektoriala zein antolakuntza- eta prozesu-berrikuntza bultzatu nahi dituzten foru- eta toki-mailako erakunde arteko sareen eraikuntza sustatuko dugu
- Eztabaidatzeko eta esperientziak trukatzeko espazioak eta foroak sortzea bultzatuko dugu foru eta tokiko sektore publikoaren eta sektore pribaturik berritzaileen artean.
- Etorkizuna Eraikiz bezalako ekimen arrakastatsuen formatua hedatuko dugu gainerako foru eta tokiko erakundeetara.
- Unibertsitate-eremuarekin eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin batera, berrikuntza publikoko foru- eta toki-programak garatuko ditugu.
- Lankidetzaren publiko-pribatua hedatuko dugu kontratazio publikoaren eremuan, besteak beste, aurretiazko kontsulten, elkarriketa lehiakorren eta kontratazioaren berrikuntzaren bidez.

EUDEL

EAJ-PNVk Euskadiko udalen hizketakide gisa aintzatesten du EUDEL; horrela, udal balioen eta interesen bozeramaile, koordinatzaile eta bultzatzaile gisa egiten duen lana aitortzen du.

Defendatzen dugu EUDEL izan behar dela udal-kudeaketaren abangoardiarako esparrua. Udal gobernuen topagunea izan behar da, bikaintasunerantz proiektatzeko. Euskadiko gainerako erakundeekiko eta eragileekiko funtsezko hizketakidea izan behar da, udalgintza aurreratua lortzeko; horrela, nabarmen lagunduko du gizarte gisa aurrera egin dezagun, zehazki, giza garapen jasagarriaren ikuspegitik.

EUDELek jarraitu behar du erakundearen arteko elkarlanerako eta hausnarketa estrategikorako esparruak eskaintzen, gobernantzako eta lurralde-garapenerako “tokiko ekosistemen” eredu aurreratuak bultzatze aldera. Tokiko ekosistema integral eta integratu hauetan, elkarriketa eta lankidetzaren oinarria izango dira, estrategiak diseinatzeko eta zerbitzu publiko eta proiektu eraldatzaileak bultzatzeko, lurraldearen balio guztia baliatzen duen garapen-eredu berri batean eragingo dutenak.

**GURE HAUTAGAIAK.
GAITASUNA, ESPERIENTZIA ETA BALIOAK**

Gure hautagaiak. Gaitasuna, esperientzia eta balioak

Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskunde hauetarako aurkezten ditugun emakumezkoen eta gizonezkoen taldeek esperientzia, gaitasuna, motibazioa eta ilusioa dituzte, erkidegoa sortzen jarraitzeko eta giza garapen jasangarriaren lidergoa hartzeko, EAJ-PNVk egunero Euskadiko herri eta hiri guztietan garatzen duen lanetik abiatuta.

Emakumezko eta gizonezko hauen bereizgarriak honakoak dira:

GAITASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

Pertsona trebatuak ditugu eta horiek eskaintzen ditugu. Hezkuntza-eremu eta eremu profesional desberdinetatik datozen pertsonak. Gazteak eta ibilbide luzeagoko pertsonak. Talde orekatuak eta kohesionatuak, gure gizartea bizitzen ari den une erabakigarriari erantzuteko prestakuntza eta gaitasunak dituztenak.

ONDO EGINDAKO LANA DAGO GURE DNAN

Urteekin, lan egiteko gaitasuna erakutsi dugu, baita udal eta foru garapenaren kudeaketa eraginkorra ere. Antolakuntza-modernizazioa, zerbitzu publikoen berrikuntza, kudeaketa publiko aurreratua eta kalitatea eta etengabeko hobekuntza sustatu egin ditugu, gure erakundearen kudeaketaren bikaintasunerantz. Eta hori egiten jarraituko dugu hurrengo 4 urteetan.

BALIOAK ETA KONPROMISO ETIKOA

Gure foru eta udal kargu guztiek garatuko dute bere lana integritate, eredugarritasun, inpartzialitate, gardentasun, zintzotasun eta errespetu printzipioen arabera, EUDELeK bultzatutako Gobernu onaren eta tokiko euskal politikaren erakunde-kalitatearen aldeko konpromisoaren arabera.

Etika, kontu-ematea, gobernu irekiak, gardentasuna eta parte-hartzea gure balioak dira, baita kudeaketa publikoa burutzeko gure forma ere. Beti entzunez eta hitz eginez. Gizarte zibilarekiko adostasunak eta aliantzak sortuz. Betiere jardunez erantzukizunaren printzipiotik.